



uk

198. zenbakia / 2011ko uztailaren 5a



Bai Euskarari urrats biziak



ziurtagiriaren **elkartea**
baieuskarari.org

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoen 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Menthaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkartearen
Topaguneko partaideak da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. San Juan sua Berangon.
7. LEHEN ETA ORAIN. Astondo, Gorliz.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. El Mokhtar Ben Jaáfar.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Hondartza denboraldia.
28. ARGAZKIA. Gorlizko erietxeko umeak, 1937.
30. BERBETAN. Adolfo Muñoz "Txiki".
34. FOTOGRAFIA. Jon Goikouria.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Kameratoia Uribe Kostan.
43. MUSIKA. Txapel Reggae, Armitza.
44. LIBURUAK. Itzulpengintza sustatuz.
45. KIROLAK. Plentziako itsasadarren XXI. igoera eta jaitsiera.
46. ELKARRIZKETA. Koldo Belasko, erlezaina.

AMAITZEKO

49. UDAKO ZAPOREAK. Paella Txapelketak.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Plentziako udako lagun taldea, 1960.
54. AITORMENAK. Ana Saboya.

Azala: Jon Goikouria

www.ukaldizkaria.biz



30 Adolfo Muñoz "Txiki"

Berbetan

100 kandela amata ditu ELAko idazkari nagusiak; une gogorak diren arren aurrera egiteko ilusioa du.



11 El Mokhtar Ben Jaáfar



54 Ana Saboya



Leioa
RENTACAR
ibilgailu-alokairua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Helikopteroa

Zirkua dela pentsa genezake, edota umore-saio bateko esketxa. Baina errealitate gordina da, probokazio latza. Azken urteotan bizitzen ari garen krisi sakonak gero eta gogorrago astin-tzen gaitu. Gai honetaz beste zutaberen batean aritu naiz, eta ez naiz bada berriro endredatuko krisiarekin eta politikoak hartzen ari diren neurriekin. Egungo belaunaldi gazteok anto-latzeko gaitasunik ez dugula entzun izan dugu behin eta berriro. Injustizia sozialen aurrean erreakzionatzen ez dakigula. Baina azken hilotan gauza bat argi geratu bada, horixe da: bagarela mugitzeko gai. Arreta gazteengan jarri bada ere, ez dira izan bakarrik gazteak kaleetara irten direnak. Mobilizazio mota anitzak egon dira, eta egongo dira hurrengo hilotan ere. Gizartea lo zegoela uste zutenentzat, hara hor ustekabea, inoiz baino esnatuago gaude eta! Baina antza, ezertaz enteratzen ez direnak, be-rriro ere politikoak dira. Entzungor, beste esfera batean baleude bezala jokatzten dute. Kalean entzuten denari kasu zipitzik egin gabe, demo-kraziaren izenean, haien lana egiten dute, “aukeratuak izan direlako”. Murritzetak eta murrizketak, bata bestearen atzetik, proposatu, bozkatu eta onartu. Sorginak bezala, herriaren ahotsaren gainetik, eta hodei guztien azpitik*. Ala gainetik? Argi gera dakigun, horrelaxe era-kutsi digute, duela hilabete eskas 24 diputatu helikopteroz heldu zirenean parlamentura. Baina zein adarjotze da hau?

* Sorginen esaldi ezaguna erabili dut, politikoen maltzurkeria erakusteko, baina jakinik, gure tradizioan sorginak pertsona estimatuak direla.

gu geu

Brontzezko domina

198. zenbaki honi brontzezko domina jarri diogu UK-ko herri olinpiadetan. Brontzezkoa podiumeko hirugarrena delako, opor aurreko atzerako kontaktetan bai behintzat. Uztailleko azken edo abuztuko lehen egunetan (auskalo banatzaileak zenbat lagun agurtzen dituen zure etxera heldu orduko), 200. zenbakia jasoko duzu. Esku artean zerbait daukagu, zuretzat Uribe Kostako herri aldizkari euskaldun bakarreko 200. zenbakia jasotzea berezia izan dadin.

Baina hori sekretuan mantenduko dugu oraingoz, azken momentuan txarto urtenez gero arazorik ez izateko. Momentuz guretzat berezia ere baden 198. zenbaki honegaz utziko zaitugu; ez gaude ados 5 edo 0 amaitzen diren urteurrenak protagonismo guztia eroateagaz. Guk gogoa ipintzen dugu berba eta irudi guztiak lantzean, irakurriko ez dituzunetan ere. Baita gure kolaboratzaileek ere, batzuetan inspirazioa lortzeko zein testua garaiz entregatu ahal izateko superbotereak behar dituztenak. Gora Arrate, Aiala, Jon, Bittor, Fredi eta gainontzeko ultraheroiak!

UK-ko lantaldea

***OHARRA: 196. zenbakiko 39. orriko lehen argazkiko senar-emaztearen alabak ondoko argazki-oina hitzez hitz jar dezagun eskatu digu: “*Manuel Dobaran eta Manuel Dobaranen emaztea, Portu Zaharreko euritakogilearen alaba*”.**

Iritzia

Uribe Kostan ere M-15eko mugimendua antolatzen hasi zen orain hilabete ba-zuk; Leioako kideek euren aldarrikapenen barri eman digute.

M15M: Benetako demokraziaren aldarrikapena

Gure inguruko demokrazia gero eta kalitate txikiagokoa da, gobernu formalen gainean botere ekonomikoak daudelako, eta hala gobernu formalek nola errealek herriaren borondatea kontuan hartzen ez dutelako. Krisia aitzakiatzat hartuta,

«Herritarren botoarekin batera txeke zuria jasotzen dutela uste dute gure politikari gehienek»

zuten. Hauteskundeetatik ateratako gobernuek, bere programak alde batera utzi zituzten eta botere ekonomikoen aurrean men egin zuten, jende arruntaren bizimodua gero eta okerrago jartzen ari den bitartean.

Krisia sortu zutenak, berriz, beti be-zain ondo bizi dira. Bankuek sortutako zuloak diru publikoz estali ondoren, mi-lioitan neurtzen diren etekinak dituzte.

Gobernuek krisia euria bezain naturala dela esaten dute, beraien ardura ukatuta.

Pairatzen dugun gobernatzeko modua ere ez da batere egokia. Herritarren boto-arekin batera txeke zuria jasotzen dutela uste dute gure politikari gehienek. Ia inoiz ez diote herriari galdetzen, eta har-tzen dituzten neurrien aurrean protestak sortzen direnean ez dute kasurik egiten. Ustelkeria ere maiz agertzen da, eta gu-txitan zigortzen da.

Egoera horien aurrean herritarren ha-serrea gero eta handiagoa zela denok ikus-ten genuen, baina haserrea ez zen erraz mobilizazio bihurtzen. Eta maiatzaren 15ean egin zen deialdia horretarako urratsa izan zen. Herri arabiarretako mo-bilizazio arrakastatsuen ereduari jarraitu zion, sare sozialak erabiliz eta herritik ber-tatik zetorren deialdia zen. Kanpaldien bitartez kalea hartuta Maiatzaren 15eko Mugimendua sortu zen. Adierazpen aske-rako eta parte hartzeko esparruak sortu ziren. Irudimen handia eta jendearen laguntza jarri dira martxan eskaerak zehazteko eta adierazteko, ekintzak gau-zatzeko eta esparru fisiko horiek antola-tzeko. Kanpaldien ondoren, herrietako asanbladak eratu dira (begiratu www.har-tubizkaia.net) mugimenduari egitura emateko, parte-hartze zuzeneko aukera emateko, gizarte mugimenduekiko lotu-rak indartzeko eta aldarrikapen orokorre-kin batera herri bakoitzeko arazoei aurre egiteko asmoz. Astero herri asanbladak batzen dira Leioan, Getxon eta Sopelan. Azken urratsa manifestazio jendetsuak antolatzea izan da, ekainaren 19an.

Mugimenduaren aurrean batzuk eti-keta jartzen saiatzen dira, eta beste batzuk mesfidati agertzen dira, inoren kontrolpe-an ez dagoelako. Guk horrelakoak izan nahi dugu, orain arte borrokatu duten gizarte mugimenduei eskua luzatzen diegu, benetako demokrazia eraikitzeko.

Leioako Maiatzaren 15eko mugimendua



BERANGO, EKAINAREN 23A

Suari egurre! / Sorgin gaua, San Juan sua, udako solstizioaren jaia, urteko gaurik laburrena... Hamaika izen jarri ohi zaio ekainaren 23ko ospakizunari, baina protagonistak izen bakarra du: sua. Arrigunagako makrosanjuanadaz gain, Uribe Kostako herri danetan suak piztu eta txarkeria danak erre

genituen: piztiak, ziraunak, zapoak, sugeak, apunteak... Berangon azkenaldian eztabaidagai izaten ari den Lantzarteko landan egin zuen Udalak su erraldoia. San Joan... zelan etorri, ala joan! Piztutako suaren errautsek, baina, bertan jarraituko dute...
O / Argazkia: Asier Mentsaka

Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika! ezazu!

Gidabaimena
euskaraz

STOP

Diru-laguntzak
gidabaimena ateratzeko
azterketa euskaraz egiteagatik*

**Teorikoa gehienez 150€
Praktikoa gehienez 50€
lehenengo klasean**

Getxoko autoeskolak euskaraz

ALGORTA AUTOESKOLA Tel. 94 460 94 43 AMEZTI AUTOESKOLA Tel. 94 491 09 15 ARIAS AUTOESKOLA Tel. 94 463 88 57 / 94 430 11 44 / 94 463 00 19 DAM AUTOESKOLA Tel. 94 602 05 09 GETXO AUTOESKOLA Tel. 94 430 25 71 PRECIADO AUTOESKOLA Tel. 651 961 901 SAN INAZIO AUTOESKOLA Tel. 94 460 00 45 URIBE KOSTA AUTOESKOLA Tel. 94 430 06 05

Informazio gehiago: 94 466 00 11

*17-23 urte artekoentzat



PASAJIA BUTRUE MUSEOA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / ASTONDO, GORLIZ

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > skate-park



2011ko apirila, “La Kantera” Algorta

Testua: **Arrate Illaro** / Argazkia: **Asier Mentxaka**
* Doinua: *Agur sagar beltzaran*

Alde batera eta bestera eginez oreka mantentzea zaila dugu zinez; nahiz (e)ta sarri bukatu gorputzeko minez, nahiz pentsatu gaudela altxatu ezinez behin (e)ta berriz eroriz ikasten da oinez.

Aspaldiko kontua da “Skate”-arena, ez hain gazteek ere gustuko dutena; erortzeak zergatik ematen du pena? Geratzen bada ere bi astez herrena ez da inoiz altxatzen erortzen ez dena.

Berriz ibiliz gero jira eta bira gurpildun taula baten jolasen harira; ustekabeen jausiz skate-park erdira berandu baino lehen altxa zaitez, tirala! Beti egoten da (e)ta baten bat begira.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....


Kalea/zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bateuro

Kontu zenbakia (20 digito)

internet > .EUS domeinua eskatuko du urtarilean PuntuEus elkarteak



info+: www.puntueus.org

Hiru urte daroa lanean PuntuEus elkarteak .EUS domeinua lortzeko. Izaera, tamaina eta jatorri ezberdineko 60tik gora elkartek eta erakundek bat egin du elkartean eta 26.500dik gora pertsonaren atxikimendua jaso dute webgunean: *www.puntueus.org*. Hiru urteotako bidearen ostean, 2012 hasieran eskatuko dute .EUS domeinua sortzeko; izan ere, urtarilaren 12an zabalduko dute epea “*edozein hizkuntza eta idazkerako lehen mailako domeinu orokor barriak*” eskatzeko; hots, domeinuen historian lehenengoz. Adibidez, arabiar edota txinatar idazkerak ere eskura lezaketere interneten domeinua. Hala erabaki zuen ICANN erakundeak ekaineko bilkuran. Orain, eskatutako baldintzak bete eta egitasmoari benetako bultzada emango dio PuntuEus elkarteak. Halere, nahiz eta eskatzeak bere onarpena bermatu ez, elkarteak uste osoa du 2013an abiatuko dela domeinua, ebaluazio fase osoaren ostean. ○

esklerosia > busti zaitez! herriz herri Uribe Kostan uztailaren 10ean



info+: www.mojate.net

Busti zaitez Esklerosi Anizkoitzaren alde kanpainaren 14. edizioa izango da uztailaren 10ean, domeka. Ohituta gaude ekimena gure herrietako hondartzetan ikusten, baina oraingoan, igerilekuetan ere garatuko dute. Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitza Euskal Fundazioak antolatzen du kanpaina. Esklerosi Anizkoitza duten pertsonakaz elkartasun eta sentsibilizazio ekintza da eta edozeinek parte har dezake. Gainera, elkarteak eskaintzen dituen errehabilitazio zerbitzuentzako dirua lortzeko helburua ere badauka ekimenak. Gurean hainbat herritan bustiko dira: Leioa eta Erandioko Altxaga zein Astrabuduko igerilekuetan, Getxoko Ereaga eta Arrigunaga hondartzetan eta Fadurako igerilekuan, eta Plentzia, Gorkiz eta Sopelako Arriatera eta Atxabiribil hondartzetan. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25

20808 *Getaria*

Gipuzkoa

...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

historia > udako unibertsitate bolibartarra, uztailaren 18tik 22ra



info+: bolibar.org/uub

Bost egunez “*jakintza libreá*” sustatuko dute uztailaren 18tik 22ra Ziortza-Bolibar herrian, Lea-Artibain, Udako Unibertsitate Bolibartarrean. Ikasketa Bolivartarren Elkarteak antolatu du. Simon Bolivar eta Amerika ditu erreferentziatzat elkarteak. Ikasketak eta etenbako formakuntza ikastaroak sustatzen ditu, horretarako Jakintza Librean oinarrituz. Lehen egunean jorratuko dute Komunikazio Teknologia, eta hilaren 19an eta 20an historia. Xabier Minaren eragina Mexikoko independentzian eta Ideia bolivartarrak herrien deskolonizazioan eta askatasunean gaiak landuko dituzte 19an, Bizkaiaren sorrera eta Gerra eta konkista Nafarroan 20an. Biharamunean ekonomiaz eta krisiaz arituko dira, eta azken egunean, Komunikazio Teknologiar buruz barriro ere, baina gaztelaniaz. Euskarazko saioak izango dira 18, 20 eta 21ekoak. Behin-behineko matrikula egin daiteke *bolibar.org/uub* webgunean. ○

surfa > Quiksilver King Of The Groms eta Roxy Girls Champ Sopelan



Uztaileko bigarren asteburuan jokatuiko dituzte txapelketa biak

Hondartza denboraldiagaz ere ekin diete surf txapelketei Sopelan. Uztailaren bigarren asteburuan izango dira Quiksilver King Of The Groms eta Roxy Girls Champ. Lehen a jokatuiko dute uztailaren 9 eta 10ean, bigarrena 10ean. Quiksilver King Of The Groms 16 urtez azpiko nazioarteko surf zirkuituko proba da. Lehia hainbat kontinentetan jokatuiko da, munduko 16 urtez azpiko 18 surflari onenak hautatzeko. Quiksilver Pro France finala urriaren 4tik 13ra izango da. Roxy Girls Champ, ordea, Euskal Surf Federazioaren Itxastxiki 2011 Zirkuituko emakumeen hirugarren surf proba da, 16, 14, 12 eta 10 urtez azpiko kategorietako neskenentzat. Helburua dute “*surflari gazteei barruan dutena erakusteko aukera ematea*”. ○



“Inspirazioa buruan daukat, ez dut argazkiakaz beharrik egiten. Artea berez ikasi dut”

El Mokhtar Ben Jaáfar > hareagaz ametsak eraikitzen

Ipuinetan legez, dragoi batek zaintzen ditu Ereagako pasealekuko jauregi dotoreak. Baina ipuinetan ez bezala, Ereagako dragoia geldo mantentzen da. Ez die gaztelu-erasotzaileei aurre egiten. Horretaz El Mokhtar Ben Jaáfar arduratzen da, ipuinik bako dragoi eta gazteluen zaindaria. Plentzian bost urte egon ostean, hiru urte daroa Ereaga hondartzan harea eta txirlakaz eskulturak egiten: “*Beti egin dut behar honetan. 14 urtegaz hasi nintzen, artea izugarri gustatzen zaidalako*”. 1989. urtean heldu zen Euskal Herrira, Marokotik. “*Nire lagun guztiek Marokotik alde egin zuten, eta orduan nik ere alde egitea erabaki nuen. Hona heldutako lehen etorkinen artean nago*”. Artearen itsasoan uger egiten hasi, eta hondartza arteagaz janzten du Benek: “*Inspirazioa buruan daukat, ez dut argazkiakaz beharrik egiten. Artea berez ikasi dut*”. Marokoarrak eguneko 24 orduak igarotzen ditu Ereagan: beharraren truke diru eske, eta haizearen firi-farak eskulturetan sortzen dituen kalteak konpontzen. Gaua da eguneko momenturik onena Benentzat. Lorenzo García lagunagaz itsasoan bainua hartu, eta izarren azpian lo egiten dute: “*Euria egitekotan, inguruko komertzioek laguntzen digute*”. Sormenaren mundu askean eroso bizi da, ez du mundu barririk bilatu behar: “*Jaio nintzen lurraldea ikusteko bueltatuko nintzateke Marokora, besterik ez. Hemen zoriontsu naiz*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan
Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Itxita

lanak direla-eta
Bizkaia Zubia barritzeko lanak direla-eta **itxita** egongo da **3tik 7ra** eta **10etik 14ra gauez**; erabilerak zaharkitutako **erraila konpondu** eta lanak **uda ostean amaitzea dago aurreikusita**

Urte hasieran hasi ziren ezker-raldea eta eskumaldea lotzen dituen Bizkaia Zubi ezaguna barritzeko lanak. Kolore aldaketa barrikuntza mediatikoena izan bada ere, beste hainbat konponketa egiten ari zaizkio. Bibrazioa ekiditeko, ontzitzoa mugitzen duen erraila aldatuko diote eta horretarako hilaren 3tik 7ra eta 10etik 14ra itxita egongo da gauez.

Urte hasieran obrak hasi zirenetik, lehenengoz erabiltzaileentzako itxi beharko dute Bizkaiko Zubia, konponketakaz aurrera egin ahal izateko. Izan ere erroda-dura hobetze aldera, ontzitzoa mugitzeko erabiltzen den erraila aldatuko dute. Urteek eta behin eta barriz errailetatik pasatzen diren gurpilek, erraila egoera txarrean utzi dute eta horrek ontzitzoari bibrazioa eragitea ekarri du. Zubiko lanak ikuskatzen dabiltzaten ingeniariaren ustez, *“aldaketek barquillari segurtasun handiagoa eta erabiltzaileei erosotasun handiagoa ematea ekarriko du”*. Errail barriak gurpilak suabeago mugitu ahal izatea suposatuko du; horretarako 320 metro errail aldatu behar dituzte.

Zubia uztailaren 3tik 7ra eta 10etik 14ra 23:00etatik 06:00etara egongo da itxita. Transbordadoreko arduradunek, esandakoaren arabera, egun eta ordu horietatik kanpo ez da inolako aldaketarik egongo eskainitako zerbitzuan. Lanak gauez egingo dituzte erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko.



Bizkaiko Zubia itxita egongo da uztailaren 3tik 7ra eta 10etik 14ra

Bizkaia Zubiko hobetze lanen barruan kokatzen da errail barritzatze hori. Zenbait auzokideren protestak ekarri dituen Zubi ondoko plaza barritzeko obrakaz batera, hainbat aldaketa jasan ditu 1893ko uztailaren 23an inauguratu

«Uztailaren 3tik 7ra eta 10etik 14ra 23:00etatik 06:00etara egongo da itxita transbordadorea»

zen Getxo eta Portugalete lotzen dituen garraioak. Horien artean mediatikoena, kolore aldaketa izan da, Somorrostro Zain Gorria izeneko koloreagaz aurpegi barria erakutsiko baitu zubiak, metalezko egitura barritzeagaz batera.

Urtean zehar egon den eguraldiak zaildu egin ditu Zubiaren goiko partetik

egin beharreko lanak eta horrek hasieran aurreikusita zegoen amaiera data atzeratzea ekarri du; dana pentsatu bezala joanez gero, uda ostean amaitu gura dituzte lanak.

Bizkaia Zubia Ibaizabal itsasadarreko alde biak lotzeko eraiki zen 1893an. Alberto Palacio Elissaguek egin zuen diseinua eta Ferndinand Joseph Arnodin frantsesa arduratu zen obraren eraikuntzaz. Ehungintza sektoreko Santos López de Letona enpresari bilbotarra izan zen proiektuaren bultzatzaile eta finantzatzaile nagusia. Mundu osoan metalezko egituraz eraiki zen lehenbiziko transbordadore-zubia izan zen. Oinarrizko egitura 61 metroko altuera duten lau dorre eta 160 metroko langa bategaz osatuta dago. ○

Info+: www.puente-colgante.com/eus

Hondartza bizi-bizi

Bizi hondartza programa irailaren 4a arte Ereagan



Ereaga hondartzan egunero begirale bi egongo dira

Ereaga hondartzak *Bizi hondartza* programaren barruko ekintza eta zerbitzuak hartuko ditu hirugarren urtez. 2010ean 4.645 lagunek erabili zuten doako zerbitzua, egunero, batz bestea, 61ek; zerbitzuari emandako erabilera arrakastatsua izan zela iritzita, aurten irailaren 4a arte egongo da programa martxan. Astelehenetik domekara, 11:00etatik 13:00 arte eta 17:00etatik 19:30 arte programatutako ekintzetan parte hartzen dutenek begirale biren laguntza izango dute, euskaraz zein gazteleraz. Honako berritasunak eskainiko dituzte: arrastiko ordutegiaren luzapena, itzalpeko gunea eta joko eta material gehiago.

Ludotekak, puzgarriak, boleibola, badminton, hondartzako futbola, petan-ka zelaia, palak eta kirol materiala erabi-

li ahal izango dira egunero; horrez gain, egutegiaren arabera programatutako ekintzetan parte hartu ahal izango dute erabiltzaileek: aerobik, herri-kirolak, hareazko irudi-tailerra, malabarismo-tailerra, ur-jokoak e.a.

Hiru izan dira *Bizi hondartza* programa aurrera eramateko Ereaga aukeratzeko arrazoiak: udalerriko luzeena da, eskaintzen duen irisgarritasun maila eta Portu Zaharraren eta Kirol Portuaren artean kokatuta dago, Udalerriko baliabide turistiko nagusiak. Ereaga hondartzak ISO 9001:2000 eta ISO 14001:2004 egiaztagiria ditu; ingurumena errespetatzeko eta ahalik eta hondakin gutxien sortzeko irizpideak bat egiteko, programak ez du motorra erabiltzea behar duten jarduerarik eskainiko. ○

ANDIKOETXE-ANDRES CORTINA ITXITA 18A ARTE

Andres Cortina urbanizatzeko lanak direla eta, uztailaren 18a arte itxita egongo da San Nikolas elizako eskaileretatik Andikoetxe kalera doan eremua. Egoiliarak, larrialdietarako ibilgailuak eta zama-lanak soilik pasatu ahal izango dira. Aipatutako obrak Getxo Antzokia eraikitze-ko 2. fasean kokatzen dira. Herri zerbitzuaren azpiegiturak jartzeko eta saneamendu sarea (euri eta ur-lohien sarea) kale azpian kokatzeko izango dira lanak. Hirutasun kaleraino doan esparruan ere eragina izango dute.

90.000 EURO GIZARTE ZERBITZUETAKO ELKARTEENTZAT

Gizarte Zerbitzuen alorrean jarduten duten 49 elkarte jasoko dute aurten Udalaren diru-laguntza; danera, 90.000 euro banatuko dituzte. Arazoak konpontzeko gizarte zibilaren parte hartzea bultzatzea, udalerrian dagoen elkarten sarea bultzatzea, gizarte-ko boluntario-lana bultzatzea eta Gizarte Zerbitzuen alorreko jardueren garapenera zuzendutako proiektuak diruz laguntzea dira erakunde hauen helburuetako batzuk. 600 eta 5.900 euro arteko laguntza eman zaie, besteak beste ondoko elkartei: Gorabide, Sortarazi, AECC, Berritasuna, FEKOOR, Gizakia, Argia Fundazioa eta APSORIASIS elkarteak, ACAMBI eta ASPANOVAS.

FADURAKO IGERILEKUAK ETA TABERNA ZABALIK

Irailaren 18a arte, udako ordutegia izango dute Fadurako kanpoko igerilekuek. Igerileku olinpikoa asteko egun guztietan egongo da zabalik, 08:00etatik 21:00 arte eta kanpoko gainontzeko gu- neak (berdeguneak, zabuak eta umeentzako igerilekuak) 10:00etatik 21:30 arte. Aurtengo udaldirako berrikuntza, taberna zerbitzua da, igerilekuetako erabiltzaileek egunero 10:00etatik 21:00etara erabili ahal izango dutena.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak

Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144

<http://www.etxeart.com>

Pornosaurio > lehen maketa kalean

“Ez gara musika talde politikoa, baina osti txarra soberan dugu”



Pornosaurio taldeko kideak

Laguntasunak eta musika zaletasunak batu zituen Xabi (abeslaria), Igor (bateria), Luis (gitarra), Felipe (gitarra), Borja (baxua) eta Noe (bigarren ahotsa) getxoztarrak. Pornosaurio musika taldeagaz hasi ziren orain urte bi eta lehen maketa atera barri dute. 80ko hamarkadako amerikar kutsua eta eskandinaviako punk-rock eragina duen 30 minutuko lana osatu dute. Maketa grabatu izanagaz pozik badaude ere, zuzenekoetan gozatzen dute gehien Pornosauriokoek; uztailaren 29an Leioako Udondo Gaztetxean eta 30ean Algortako Txosnetan egongo dira.

—Zelan sortu zen taldea?

—Betiko lagunak gara, musikagaz lotutako hainbat batailatan ibilitakoak. Punk-rock, hardcore... makinatxo bat taldetan ibili gara. Gure adinagaz ez baduzu hobbyrik aurkitzen... ugerrak jaten zaitu. Kar-kar. Zarata ateratzeko eta ondo pasatzeko batu ginen, asmo handi barik; baina, aldi berean, serio hartu gura izan genuen.

—Zelan osatu duzue lehen lana?

—Autoekoitzitako maketa da. Taldearen izen bera du, Pornosaurio. Bost euroren truke, 30 minutuko punk-rock emanal-

dia eskura daiteke. 80ko hamarkadako Ameriketako punk-rock eta hardcorearen eta Eskandinaviako punk-rockaren eragina du, The Helicopters eta Glucifer bezalako taldeena. Horrez gain, Euskal Herriko zein Espainiar Estatuko eragina ere badugu. Detroiteko The Stooges eta MC5 taldeak era gustuko ditugu. Danen nahasketatik sortu da maketa.

—Zuen abestiak dira danak?

—The Stooges taldearen bertsio bat izan ezik gainontzeko danak gureak dira. The Stooges-en kantarako, La Perrera taldeak

egindako gaztelarazko bertsioaren letra hartu dugu, musika originala mantenduz. —Non eskura daiteke maketa? —Gure kontzertuetan diskoak salgai ditugu; horrez gain, Bilboko Gatazka Gunean, Street Warriors dendan eta Muga tabernan daude eskuragarri.

«Gure helburua gertatzen zaizkigunak zintzotasunez islatzea da»

—Letrak zein hizkuntzatan dira?

—Berba egiten dugun bezala abesten dugu; horregatik, hasteko, gaztelaraz egin ditugu. Dena den, abestiren bat euskaraz egin gura genuke, baita ingelesez ere. Modu naturalean ateratzea gura dugu; gure helburua, gertatzen zaizkigunak zintzotasunez islatzea da. Ez gara talde politikoa, baina osti txarra soberan dugu. Ingurukoek letrak negatiboak eta suntsitzaileak direla esaten digute; arrazoia daukate, orokorrean ez gaude umore onez.

—Zelan ikusten duzue musika talde txikien panorama Getxon?

—Gu ez gara umeak, 30 urtetik gorakoak gara eta mugimendu gehiena gaztetxo-en artean ematen da, eurak dira abangoardia. Guk gura duguna egiten dugu eta ez dugu ondo ezagutzen herrian zer mugitzen den. Baina badaude adibideak; Baltzak taldeak adibidez hardcore euskaldun berezia sortzen du. Oso gustura jutzen dugu eurakaz. Horrez gain, badakigu skin harrobia ere badagoela. Taldeak mugitzen dituen herria izan da beti. Orain erraztasun handiagoa dago; azpiegiturak eta musika tresnak. Teknologia barriakaz informazio gehiegi dago, baina zuzenekoak da garrantzitsuena, hor erakusten da dana. Jotzeko lekuak badaude. ○

Info+: www.myspace.com/pornosaurio

Eta aurten zer?

Sorpresaz beterik helduko da beste behin ere Biotz Alaira **Bertso Jaialdi Mundiala**



Goi mailako bertsolariak hurreratuko dira beste behin ere Bertso Jaialdi Mundialera

Misterioz inguraturik dator beste behin ere ALBEk antolatzen duen eta udako bertso saioen izarra izan ohi den Bertso Jaialdi Mundiala. Bertso gau eder-raz gozatzeko aitzakiak ez dira faltakoa: goi-mailako bertsolari taldea, ondo prestatutako gai jartzailea, publikoa barrez lehertzera eroango duten egoerak, sorpresak e.a.

Uztailaren 13an Andoni Egaña, Sus-trai Colina, Unai Iturriaga, Jon Maia, Fredi Paia eta Maialen Lujanbio hurbil-duko dira gaueko 21:00etan Biotz Alai plazara; Peio Unzurrunzaga egongo da gai-jartzaile lanetan. Ez dira sorpresak fal-

tako gau osoan zehar; ALBEko lagunak aurreratu dutenez saio esperimentala izango da eta entzuleak ezinbestekoak izango dira saioaren garapenerako: *“Aurten ere, entzule gisa saio mundialera datorrenak, prest egon behar du momentu- ren batean parte-hartzen. Bertsotan ez dugu inor jarriko, baina bertsolarien laguntzaile klabe bihur daitezke tarteka, moduren batean ala bestean”*. Sukaldari lanetan, maiteminduta, ume jolasetan, abentura bila munduan zehar... danetik egiten ikusi ditugu orain arte. Aurten zer egingo duten jakin gura baduzu hurrera zaitetz 13an, bertsozale! ○

BISITA GIDATUAK ETA ANTZEZTUAK UZTAILEAN

Getxo ezagutzera hurbilduko diren atzerriko lagunak dituzu? Getxoko Turismo Bulegoak Bizkaiko Zubiaren historia ezagutzeko bisita gidatuak eta antzeztuak antolatu ditu uztaila, abuztua eta iraileko domeketan. Uztailean, 10ean eta 24an bisita gidatueta- n parte hartu ahal izango da eguerdiko 12:00etan 3 euroren truke. Bisita antzeztuak barriz 17an eta 31n egingo dira ordu berean eta horietarako 6 euro ordaindu beharko da. Plaza kopurua mugatua izango da eta horregatik alde- z aurretik izena ematea beharrezkoa da.

Info+: www.getxo.net/turismo/ / 944 910 800

KEPA ACERO SURFILM JAIALDIAN IRABAZLE

Kepa Acero surflari algortarrak epaimahaiaren Film Labur Onenari Saria eskuratu zuen Amstel Surfilm Jaialdian. “Ipar bidea, transkantaurikoa bizikletaz” lanagaz lortu zuen saria. Bere azken proiektuaren barruan egindako lana izan da Jaialdiko txapelduna. 979 kilometro egin ditu Kantauri itsasoko kostaldea zeharkatuz eta bidean hainbat bideo labur eta argazki igo ditu proiekturako beren-beregi egindako blogera. Surfa eta naturarekiko harremana ikuspuntu pertsonaletik landuz, ikus-entzunezko lanean murgilduta dabil azken urtean Acero.

Info+: <http://larutanorte.com>

KALE ANTZERKIA ALGORTAKO GELTOKIAN

Uztailaren 11n kale antzerki emanaldia egingo dute Algortako Geltokia plazan. Arrastiko 18:00etan izango da Eusko Jaurilaritzaren *Antzerkia bultzatzu* kanpai-aren barruan antolatu den emanaldia. Gorakada taldeak *Jim, altxoraren uhartean* lana ekarriko du, familiartean ikusteko antzerki lan euskaldun eta dibertigarria. Sarre- ra doakoa izango da. Jaurilaritzaren kanpai- nak ahalik eta jende gehien antzerkira hur- biltzea du helburu eta horretarako hainbat herrian antolatu dituzte emanaldiak.

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Iker Herrero > Basaki musika taldeko kidea

“Forma oso berezian konposatu dugu: musikagaz hasi, gero melodia, eta haren arabera, hitzak”

Hamabost urte bete du Leioako taldeak eta ospatzen dabil. **Bigarren diskoa kaleratu du eta Leioako jaietan jo du San Juan egunez eta txosnetan, hain justu taldearen lehen kontzertutik 15 urtera, leku eta egun berean. Herrerok pare bat egun lehenago erantzun zituen galderok.**

—*Egunero hasten da* bigarren lana kale-ratu duzue, soinuari ukitu barria eman eta oinarri astunagoa ei du.

—Afinazio baxuagoa aukeratu dugu, kantak kañeroagoak geratu dira. Bestalde, kantuak beste era batean pentsatuta, konposatuta eta abestuta daude. Forma oso berezian konposatu dugu. Entsegu loka-lean elkartu eta norbaitek zer edo zer konposatuta bazeukan elkarrekin jo eta grabatzen genuen musika. Ahotsa sartze-an ez genuen jotzen, grabazioa entzun eta nik soinuak inprobisatzen nituen, hitzik barik. Natxok idazten ditu, grabazioa ero-aten eta iradokitzen zionaren arabera idazten zuen. Abesti gogorragoa, letra ere gogorragoa. Musikagaz hasi, gero melo-dia, eta haren arabera, hitzak sartu ditu-gu. Errazagoa izan da, entzun eta aukera ematen duelako gauzak aldatu edota barriak sartzeko; errazago konturatu gara



www.myspace.com/basaki

abestiak zer behar duen eta zer ez. Gallartako Astrocan estudioan grabatu dugu, Eli Arbaiza izan dugu teknikari.

—**Urteak aurrera, garapena nabaritutoko zenuten.**

—Argi eta garbi antzematen da. Hasieran era batean konposatu eta modu bateko kantuak ateratzen ziren, orain kantu hel-duagoak atera dira. Lehen maketa eta azken diskoaren artean alde handia dago.

—**15 urte, horregatik disko barria?**

—Ez, horrela suertatu da. 2006an kalera-tu genuen lehen diskoa. Bizpahiru urtez emanaldiak egin genituen eta abesti barriak atera dira; horiek kaleratzeko beharra izan da *Egunero hasten da*.

—**Leioako jaietan joko duzue, data be-rezia, zerbait berezia egiteko asmorik?**

—Oso berezia izango da, justu lehen kontzertua eman eta 15 urtera. Antzi-nako abestiak gogoratu eta sorpresaren bat izan daiteke. ○

Berdintasun tailerrak

Datorren ikasturtean **parte hartzeko** izena eman daiteke **abuztuaren 31 arte**



Informazio gehiago eta izen-ematea: Zerbitzu Sozialak (Inaurratzaga, 1)

Emakumeak sukaldaritzan zein etxeko garbiketan eta gizonak elektrizitatean, oso markatuta eta bereizita daude rolak etxeko antolaketari dagokionean ere. Baina eredu horregaz apurtzeko aukera aprobeitza dezakezu Leioan: erantzukide-tasun eta autonomia tailerrak, irailetik abendura. Udaleko Zerbitzu Sozialek antolatzen dituzte eta izena eman daiteke 2011-2012 ikasturtean parte hartzeko, Inaurratzaga kaleko lehenengoan dauka-te bulegoa.

Emakumeentzako brikolajea, elektri-zitatea eta igeltserotza ikastaroak prestatu dituzte, gizonentzako barriz, etxearen garbiketa eta antolaketa, lisaketa zein jos-keta eta sukaldaritza. Talde bakoitzak 16

partaide hartuko du eta 10 euro ordain-du behar da. Guztiak garatuko dira iraila eta abendua bitartean, Leioa-Getxoko LHKn: emakumeentzako tailerrak irai-laren 19tik abenduaren 21era, eta gizo-nentzakoak, irailaren 14tik abenduaren 21era; 30 ordu iraungo dute.

Horietaz gain, autodefentsa pertso-naleko ikastaroa ere egin ahalko dute emakumeek aurtengo eskaintzaren ba-rruan. Azaroan izango da, martitzen eta eguenetan, 10:30etik 12:00etara, Sako-neta kiroldegian. Ikastaro honetarako kiroldegian egin behar da izen-ematea. EHUKo ikasleek aukera askeko kreditu bat eskura dezakete; 5 euro ordaindu be-har da parte hartzeko. ○

EZKONTZA ERAKUSKETA ORAINDIK IKUSGAI

Ezkontza *The Wedding* erakusketa uztailaren 24ra arte ikus daiteke Kultur Leioako erakustaretoan. Erakusketa-egileen iritziz, jendarte teknologiko eta globalizatzailean ezkontzek pertsonen alde arin eta hutsala ipintzen dute agerian: “*Beste jai bat bihurtu da, gainbehera datorren irudia, aspaldiko errituaren balio berezko eta espiritual gaia duen glamour mota bat*”.

POP-ROCK LEHIAKETA, LEIOZTARRAK GARAILE

Herriko taldeek irabazi dituzte XI. Pop-rock Lehiaketaren sari nagusiak aurtun. Last Fair Deal-ek eskuratu zuen pop-rock mailako saria eta lehiaketaren sari orokorra. Metal mailan, barriz, Quaoar taldeak irabazi zuen; gainera, Ikuslegoaren saria ere eroan zuen. Leioako Udala saria Avernok irabazi zuen, beste saririk bako Leioako talderik onena izateagatik. Euskarazko abesti onenaren saria, ordea, Ero taldeak eskuratu zuen, Malko izoztuak kantuagatik; irabazle ez leioztar bakarrak izan ziren azken hauek. Ekainaren 17an jokatu zuten lehiaketaren finala Barandiaran Behekoa Institutuan, kontzertu baten bitartez. Maila bakoitzeko irabazleak 1.800 euro jasoko du eta diskoa grabatuko dute talde bakoitzaren abesti bigaz. Leioako talderik onenari eta euskarazko abesti onenari 600 eurona eman diote.

ORMAETXEA LEIOZTARRA JOTALARIRIK ONENA

Jota Txapelketaren XI. edizioa ospatu zen iragan ekainaren 19an. Haizea Hormaetxea leioztarrak eta Lander Campos santurtziarrak irabazi zuten nagusien mailan. Bigarren lotu ziren Nagore de las Cuevas (Sestao) eta Arkaitz Pascuas (Sestao), eta hirugarren Idoia Besada (Pasai Antxo) eta Jon Ibarguen (Azpeitia). Gazteen mailan garaile izan ziren Garazi Gurrutxaga eta Asier Ibarguen azpeitiarrak.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2

Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

Abant

Basarrate 20 lonja 48991 (Algorta-Getxo) Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

- Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa
- Ikaskuntzaren zailtasunak (idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)
- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Luberri Basolanak, SL

Axpe ibaiertza 28A

beheko solairua B12 lokala

Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38

Tf. :94 467 17 13

Faxa: 94 467 42 41

luberri@euskalnet.net

www.luberri.biz

- Soropila ezartzea
- Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
- Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.
- Inausketak
- Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

16UK

UK17

Athletic Cachorros Peña

“Partidak ikusteko elkartzen ginen; barre asko egin eta oso ondo pasatzen dugu”

Hiru urte daroaz lanean Cachorros peñak. Astrabuduko Ula Ula tabernan elkartzen dira partidak ikusteko eta Athletic-eko emakumeen partidetara joan ohi dira Lezamara. Ekainaren 24an peña inauguratu zuten ofizialki, elkarriketaren biharamunean.

—Hiru urte ostean inauguratuko duzue peña, zergatik orain?
—Diru apur bat batu dugunean... Athletic-ek peñari ofizialtasuna aitortze-ko ekimenen bat egin beharra dago. Guk partxis eta dama lehiaketa egiten dugu urtero eta sinadurak batu ditugu.
—Bihar zer egingo duzue?
—Beste peñetakoak eta Athletic-eko zuzendaritzako kideak etorriko dira. Peña aurkeztu eta aurrekoa dantzatuko zaie gonbidatuei. Mokadutxoak jan eta berbera ere egingo dugu. Zapatuan umeentzako tailerrak, poteoa, igel txapelketa eta bazkaria egingo dugu. Asko dibertitu gura dugu, jendeak ondo pasa eta goza dezala.
—Ula Ula tabernan elkartzen zarete?
—Bai, partidak ikusi eta hamabostean behin edo egiten dugu bilerak. Domekatar Athletic-eko emakumeen taldearen partidak ikustera joaten gara Lezamara. Emakumeek ez dute jokatzeko



Athletic-eko Peña ofizial da Cachorros ekainaren 24tik

San Mamesen, alboratuta dauzkate zuzendaritzakoek.
—Nolatan sortu zenuten peña?
—Partidak ikusteko elkartzen ginen tabernan. Lagun batek harremanetan ipini ginen peña osatzeko prozesuak nolakoa izan behar zuen jakiteko. Hasieran lau katu ginen baina apurka-apurka jende gehiago batu da, dagoeneko 25etik gora gara. Barre asko egin eta oso ondo pasatzen dugu. Batzuetan beste peñek antolatutako ekimenetan

ere parte hartzen dugu, Peñen Egunean, San Mamesera joaten gara batzuetan e.a. Urtean behin soilik ordaintzen dugu kuota. Gura duen oro animatzen dugu peñan apuntatzera, oso ondo igaroko du-eta.
—Orain hauteskundeak izango dira.
—Batzuek diote eragin handiagoa izaten dutela bazkideengan, gure ustez guri ere eragingo digu, zelako jokalariek ekarriko dituzten edo denboraldiari begira nolako ikuspegia daukaten. ○

Erandio Argentinara

Herriko argazki talde bik eroango dute Laprida herrira **Erandioko Txokoak** erakusketa



40 irudik osatzen du erakusketa

Gauzak kontatzeko modu desberdinak daude, irudi bitartez ere gauza asko erakuts daitezke. Horregatik eroango dute Argentinara **Erandioko Txokoak** argazki sorta Takolos Radio Klubak eta Axpe Argazki Taldeek. Argazkilaritza zaleek osatzen dituzte talde biak eta Erandio munduan erakustera eman gura dute antolatzaileek.
Berrogei iruditan ikus daitezke herriko leku erakargarri asko. Ekainean Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean egon dira 40 argazkiak, beste hainbat lagunek eginak. Baina herriko saltoki eta merkataritza guneeetan kokatu dituzten beste 280 irudigaz osatzen da erakusketa.

Uztaila osoan, ostera, Lapridako Lagunen Etxean ikusi ahaliko dira, Buenos Aires probintzian. Tokioko Euskal Etxeak eskatu zuen lehenago bilduma Japoniara eroateko, baina gertatu lurrikar handiak eragotzi zuen argazkiek Asiara bidaiatzera.
Antolatzaileek internet bitartez egin zuten harremana munduko hainbat Euskal Etxegaz eta laster deitu zieten Ameriketarik ere, euskal diasporaren indargune garrantzitsuen adierazle. Lapridako erakusketagaz beste hainbat Euskal Etxek ateak zabaltzea gura lukete Takolos eta Axpeko lagunak. ○

JAIK IZANGO DIRA GOIERRIN ETA ASUAN

Beti dago zerbait Erandion, eta uztailaren ere jairik ez da faltako. Uztailaren bigarren asteburuan ospatuko dituzte San Cristobal jaia Goierrin, hilaren 8tik 10era. Asuan, barriz, 15etik 17ra izango dira. Goierrin barikuan botako dute txupina, umeentzako jolasak izango dira eta gaupasa egingo dute Gora Herria taldeagaz. Zapatua 9an Sokatira txapelketaren finala izango da 600 kilotan eta Haitzamak girotuko du gaua. Domekan, ostera, kotxe eta motor klasikoek kontzentrazioa egingo dute goizean eta asto-probak arrastian. Asuan ere egongo da giroa. Barikua 15ean sardina-jana eta erromeria izango da, Akerbeltz taldeagaz. Zapatua 16an, besteak beste, tortilla eta sukalki txapelketak egingo dituzte eta berbera eskainiko du Egan taldeak. Domeka 17an, barriz, herri-bazkaria eta erromeria izango dira. Ondo pasa erandioztarrak!

FOLKLORE JAIALDIA UZTAILAREN 21EAN

Beroagaz batera Folklore Jaialdia ere iritsi da Altzaga auzora. Uztailaren 21ean izango da 25. edizioa eta gonbidatu berezia ekarriko dute data biribila ospatzeko; Egiptotik etorriko da AUC Folklore Dance & Music Group, Trabudu Dantzari Taldeagaz batera dantzatzeko. Altzagako kiroldogian izango da saioa, 19:30ean. Gonbidapena behar da, Udaleko Kultur sailean edota Astrabuduko Kultur Etxean eskura daitezke uztailaren 11tik aurrera.

ZINEMA KALEAN, UZTAILA OSOAN

Aretotik urten eta goxo-goxo ikusi ahaliko dituzu filmak kalean Astrabuduan eta Altzagan, uztailaren 8an *El castor* pelikula emango dute Irailaren 23a plazan, 15ean *Código fuente* eta 22an *Esta abuela es mi padre* emango dituzte Josu Murueta plazan, eta 29an, *Medianoche en París* ikusi ahaliko da Irailaren 23a plazan. Denak hasiko dira 22:00etan.





BIZKAIA IRRATIA **Uribe Kostan**

F.M. **102.6** Mhz

www.bizkaiairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



↑↓

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

GOAZEN SANTA MARINAKO
ERROMERIARA!

Urtero legez, uztailaren 20an Santa Marina eguna ospatuko dute Sopela eta Urdulizko auzokideek. Sopeloztarrek goizeko hamarretan hasiko dute ospakizuna. Txupina bota, eta kalejiran Santa Marinaraino helduko dira, Barinatxe taldeko txistulariakaz. Hamaiketako meza nagusiaren ostean, ohorezko aurrekua eta lore eskaintza egingo diote Fernando Ansoleagari. Trikitixagaz alaitutako hamaiketako egin, eta herri-bazkaria izango da. 16:00etan erromeriaren txanda heldu, eta tortilla lehiaketak egunari txapela jarriko dio.

HONDARTZAN UR
KONTSUMOA %98 IGO DA

2009. urteagaz alderatuta, 2010.ean %98 igo zen Arriatera-Atxabiribilen zerbitzuetako ur kontsumoa. Honen aurrean, kanpaina abian jarri du Udalak: kartelak jarri eta perlizagailuak banatu dituzte. Gogoratu, hondartzara bazoaz, dutxako ura kontrolatu eta hartu bizikleta edo Sopelbus!

ILARGIPEKO ZINEA
UZTAILEAN ETA ABUZTUAN

Udako gau epelak zinema ikusteko aprobetxatuko dituzte sopeloztarrek. Kultur Etxeak ilargipeko zinea antolatu du uztaila eta abuzturako. Lehenengo hilabetea, udaletxe plazan egingo dira proiektzioak: 9, 23 eta 30ean. Jaiakaz legez, Larrabasterraren txanda helduko da abuztuaren 6, 13 eta 27an. Zine-emanaldiak 22:00etan izango dira egun guztietan. Ez ahaztu krispetak!

ARRAKASTATSUA PAPER
JASOTZEKO ZERBITZUA

Udalaren arabera, arrakastatsua izaten ari da maiatzean herriko merkatarien artean papera eta kartoia jasotzeko zerbitzua. Hilabete batean 3.260 kilo jaso dituzte, eta 'gertakari' gutxi jaso dira. Momentuz, zerbitzua abendura arte luzatzea aurreikusi dute.

Badator bigarren txanpa!
Uztailaren 14tik 17ra ospatuko dituzte
Larrabasterrako jaiak, ez lotu etxean!



Txikieneek hamaika ekintza izango dituzte jaietan

Karmen jaiak San Pedro jaien lekukoa hartuko dute uztailaren 14an, aspertzeko tarterik izan ez dezagun. Larrabasterrako egitarau oparoa prestatu dute bai Udaleko bai Jai Batzordeko lagunek. Lau egunetan, adin guztietarako ekitaldiak izango dira. *Zirkale* kale ikuskizunak emongo die hasiera jaietara, 19:00etan. Horren ostean etorriko da umore jaialdia eta kontzertuak: Tony Ronald eta Haitzama Urgitxeta plazan, eta herriko taldeak zein Vendetta txosnetan.

Jaietako egun handian, Karmen

egunean hain zuzen, haurrentzako ekimenak izango dira nagusi. 20:00etan, esaterako, *Hipo eta Tomas* ikuskizuna egongo da. Gauean, Urgitxetan zein txosnetan, gautxoriek eskaintza zabala izango dute: Colajets, Basaki, Uzzuhaia, Katarrama eta Brams. Zapatuan herri-bazkaria antolatu dute txosnetan, eta kirolariek spinning maratona eta zurjokoak egiteko aukera izango dute. Azken egunean bizirik jarraitzen dutenek, marmitako lehiaketa izango dute zain, 10:00etatik aurrera. Mariatxi jaialdiak itxiko ditu Larrabasterrako jaiak. ○

Saioa Villanueva Zarandona > Alkatea

“Parte-hartze aktiboa sustatuko dugu: hirigintzan, aurrekontuetan, jaietan...”



Bilduk 2.271 boto eta zazpi zinegotzi eskuratu zituen Sopelan

Indarragaz heldu da Bildu koalizioa eskualdeko herri guztietara. Sopelan zerrenda bozkatuena ezkertiar eta abertzaleena izan zen, eta horren ondorioz, Saioa Villanueva Zarandona 33 urteko sopeloztarra izendatu dute alkate. —Alkatetzara heldu zinetetik egun batzuk igaro dira, zelan daroazu alkate izatearen beharra? —Martxa hartzen, egunero 48 ordu beharrean baina gustura, zentzu guztietan topera: udaleko erritmoa eroaten ikasten... Lana gustatu egiten zait eta azkenean erronka bat da, eta aurrera goaz ilusio handiagaz. —Sopelako lehen emakume alkatea zara... —Bazen garaia bai! Egun emakumeok gizartean dugun egoera ikusita, eta historian zehar izan duten egoera ikusita, esanguratsua da. —Eta emakumea izateaz gain gaztea... —Bai, oso gaztea, kar-kar! Normalean Sopelan beti egon dira alkate nagusiago-

ak, baina aurrean adin-maila jaitsi dugu. —Zein eremutan igarriko dute sopeloztarrek gobernu aldaketa? —Oraindino gidoia prestatzen ari gara, baina gehien nabaritutako den arloa parte-hartzea izango da. Erabakiak herritik etorriko dira: bertatik hartuko dira ideiak, adibidez jaietara begira, hirigintzan, aurrekontu parte-hartzaileak... Parte-hartze aktiboa sustatuko dugu, lantaldeak sortuz. Orain arte Sopelan ez da horrelakorik egin, eta Uribe Kostan horren erreferente izan gura dugu. Beste herri batzuetako ereduak begiratzen ari gara.

«Akordioak lortzeko prest gaude, herria denon artean egin behar dugu!»

—Halan da be, udal gobernuak gutxiengoan egoteak egoera baldintza dezake... —Itxaropentsu gaude. Egunotan alderdiakaz berba egin dugu, eta akordioak lortzeko prest gaude. Herria denon artean egin behar dugu! ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER
DEVNA
ikastola

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

FUTBOL-7 TXAPELKETAN IZENA EMAN DEZAKEZU!

Aurten Santa Ana eta Santo Domingoko jai-ek barritasun ugari izango dituzte. Kukullaga jai batzorde herrikoiak kultur eta kirol taldeen parte-hartzea sustatu du, eta horren eraginez, hainbat txapelketa izango dira jaietan. Berangoko futbol taldearen lankidetzagaz, Santo Domingoko jaietan futbol-7 txapelketa izango da. Izen-ematea, baina, uztailearen 24an amaituko da. Horretarako, berangoft@gmail.com helbidera idatzi behar da, parte-hartzaileen izenakaz. Hainbat kategoria egongo da: benjaminak, alebinak, seniorrak... Sailkapen faseak, barriz, ondorengo datetan ospatuko dira: abuztuaren 4, 5 eta 6an, arrastiko 16:00etatik 21:00 arte (finalaren kasuan, 17:00etatik 20:00 arte). Iturriaga futbol zelaia hartuko ditu partida guztiak. Animatu eta jaietan parte hartu!

BIZIMETAKO BIZIKLETEK ATERPE BARRIA DUTE

Bizimeta zerbitzuko bizikletak babesteko helburuagaz, aterpea eraiki dute bizikletak hartzeko guneeetan. Berangon Uribe Kostako Mankomunitateko bizikleta-zerbitzua hartzeko gun e bi daude: Sabino Arana kalean (metro geltokia eta pilotalekuaren artean) eta Axxgane auzoan (skate parkaren aurrean). Aterpe barriak pertsiana izango du, bizikletak gauetan babesteko. Izan ere, eskualde osoko guneeetatik kalte gehien jasotzen dituztenak Berangoko biak dira. Era berean, euriak sortzen dituen kalteetatik ere babestuko dituzte.

Garaizar

barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskaltel.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

Hamar urte lanean Uribe Kostako Behargintzak 200 enpresaren sorrera bultzatu du azken hamarkadan



Karabiazpi auzoan dago Behargintzaren bulegoa

Uribe Kostako Mankomunitateko Behargintzak hamar urte bete du. Enplegua garatzeko agentziaren sorrera helburuak bi izan dira. Alde batetik, “pertsonea langabeei tresna bat eskaintzea lanera sartzeko aukerak handitze-ko” eta bestetik, “eskualdeko ekonomia piztea”. Hamarkada bateko lanaren ostean, datuen errepasoa egin du. Behargintzaren arabera, hamar urteotan 200 enpresaren sorrera bultzatu du eta 10.000 lagun artatu du. Horretarako diru-laguntzak tramitatu ditu eta ehun-ka ikastaro antolatu du. Enpresak sor-

tzen laguntzeaz gainera, horien garape-nerako ikastaroak ere antolatu ditu. Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz eta Berango udalerriek osatzen dute Mankomunitatea.

Sorreran, Sopolako Gatzarriñe kalean zeukan bulegoa Behargintzak, baina jarduna gero eta handiagoa bihurtu zen eta ekimen gehiago garatzeaz batera, txiki lotu zen lokala. Hori dela eta, 2007. urtean Berangora aldatu zuten eta bertan dirau gaur egun, Karabiazpi auzoko 1. zenbakian. ○

Info+: www.urkobe.net

Arantza Etxebarria Villabeitia > Alkatea

“Herria sentituz, ez dago alkate izatea baino ohore handiagorik”



EAJk 1.108 boto lortu zituen Gorlizen, bigarren indarrak baino 150 gehiago

Gorlizko alkatezara bueltatu da EAJ lau urteko hutsunearen ostean. Arantza Etxebarriak gidatzen zuen hautagaitzak irabazi zituen maiatzaren 22ko hauteskundeak, eta zerrenda bozkatuena izan zenez, alkate izendatu zuten ekainaren 11n. Orain, oposizioagaz berba egiteko prest agertu da alkate jeltzale barria. —1999tik 2003ra zinegotzi izan ostean, orain Gorlizko alkate bihurtu zara. Zelan ikusten duzu zure burua?

—Egia esateko asimilatzea kostatzen ari zait, eskuratu dudak erantzukizunaz jabetzen naiz. Baina harro nago nire herria ordezkatzear; neure herria benetan sentitzen badut, uste dut ez dagoela ohore handiagorik, nire herriarentzako proiektuak aurrera eramateko gaitasuna izatea baino.

—Udaleko martxa hartzen ibiliko zara orain, ilusioagaz, ezta?

—Bai, ilusio handiz. Badakit arazo ugari

izango ditudala aurrez aurre, eta erabaki batzuk hartzea zaila izango dela, guztion gustukoa izango ez delako. Agian ez naiz ona izango denentzat, baina espero dut gutxi batzuentzat baino ez izatea txarra.

«Gutxiengoan gaudenez, akordioak bilatzera behartuta gaude»

—Zeintzuk dira Udalean emango dituzun lehenengo urratsak?

—Aspaldiko partez, udal gobernuak gutxiengoan gobernatuko du, orduan beharrezkoa izango da Bildu eta talde independenteagaz berba egitea. Lehen, gehiengoagaz, ez zegoen paktuak egiteko beharrik, eta orain bai. Hori positiboa da, akordioak bilatzera behartuko gaituelako. Posible zaigun heinean, hasitako lanak mantentzen saiatuko gara, ez dugu zentzua duen proiekturik geldiaraziko, akatsa izango litzateke. ○

OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net

OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OSTAIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27. behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

OPARIAK MODA GAZTEA

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

EKOGUNeko TAILERRE-TAN IZEN-EMATEA

Uda hasi barria dugun arren uda osteko ikastaroak prestatzen dabilta daborduko Ekoguneko kideak. Irailean eta urrian landare-hormak eta lorategiak diseinatzeko ikastaro bana antolatu dituzte, eta izena emateko epea uztailaren 8ra arte egongo da zabalik. Ikastaro biak debalde izango dira, 15 orduko iraupena izango dute eta parte hartzeko ezinbestekoa da Mankomunitateko herriren batean errolatuta egotea. Animatu!

‘SKALADA EGUNA’ IZANGO DA ARMINTZAKO JAIETAN

Uztailaren 13an hasi eta lau egun beranduago amaituko dira aurren Armintzako jaiak. Jai Batzordeak egitarau potoloa prestatu du aurren. Besteak beste, uztailaren 16an ‘Skalada Eguna’ antolatu dute, portuan jarriko duten rokomobilean. Bezperan, barriz, Armintza Ragga Cuping ospatuko dute. Jai ei amaiera emateko, ohiko ‘bizirik dirautenen poteoa’ egingo dute.

JAIK JAI PLENTZIAN, TXIPIO ETA KARMENAK!

Plentziarrek ez dute astirik izaten jai baten ostean atsedeen hartzeko; jaiak jai igarotzen dute uda osoa. Uztailaren 8, 9 eta 10ean Txipioko jaiak izango dira, herriko koadrilek antolatuta: paella txapelketa, goitibeherak, erromeriak, sardinada, dantzak, jolasak... Uztailaren 16an, barriz, Karmenak hasiko dira: kontzertuak, puzgarriak, marmitako txapelketa, pailazoak... gozatu!

PLENTZIA

1927. urtean grabatutako *Plencia* filma, ikusgai!



Dokumentalean itsasadarra, portua, hondartza, San Antolin jaiak... ikus daiteke

Kandelaria kultur elkarteak antolatuta, zine-forum berezia izango da uztailaren 14an 19:00etan Goñi Portalen. 1927. urtean grabatutako harribitxia ikusteko aukera izango du bertara hurreratzen denak. Leon Armando Zalbidea zuzendarri plentziarrak grabatutako *Plencia* dokumentalean, garai hartako Plentziaren irudiak ikus daitezke: itsadarra, portua, hondartza, San Antolin jaiak... Filmak 12 minutuko iraupena du, eta mutua denez, proiektzioa musikagaz lagunduko dute:

biolin eta piano-jotzaile bik zuzeneko emanaldia eskainiko dute dokumentala proiektatzen den bitartean. Filma ikusi ostean, zine-foruma pres-tatu dute Kandelariako lagunek. Horretarako, zuzendariaren eta filmaren inguruko azalpenak ematen dituzten liburuxkak banatuko dituzte. Kultur Elkarteko kideek azpimarratu duten lez, *Plenciak* ez-ohiko garrantzia du, garai hartan egindako dokumental oso gutxi gorde direlako. ○

Uzt. 5 - Uzt. 18

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Ricardo Carrillo de Albornozen argazkiak, Jazzaldiaren barruan.** Algortako Satistegi kafean. Uztailaren 10era arte. Doan.

ERANDIO

► **Kuba, uharte solidarioa.** Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. Uztailaren 15era arte.

PLENTZIA

► **Teresa Ellakuriaren margoak.** Goñi Portalen. Uztailaren 15era arte.

GORLIZ

► **Patxi Bengoaren arte.** Erakusketa aretoan. Uztailaren 11tik 20ra.

LEIOA

► **Ezkontza.** Kultur Leioan. Uztailaren 24ra arte.

MUSIKA

ERANDIO

► **Gora Herria.** Goierriko jaiak. Uztailaren 8an, 24:00etan.
► **Haitzama.** Goierriko jaiak. Uztailaren 9an, 24:00etan.
► **Dantzaldia.** Josu Murueta plazan. Uztailaren 17an, 18:00etan.
► **Folklore jaialdia.** Altzagako kiroldegian. Uztailaren 21ean, 19:30ean.

GORLIZ

► **La leyenda Irlandesa.** Orkestra 207 Kultur Elkartea. Pilotalekuan. Uztailaren 10ean, 12:30ean.

SOPELA

► **Herriko taldeak eta Vendetta.** Larrabasterran, txosnetan. Uztailaren 14an, 23:00etan.
► **Biok eta Hamlet.** Urgitxieta plazan. Uztailaren 16an, 23:00etan.

► **Zinema**

Udan zinema kalean eta herriz herri

Parrandarako gogorik ez? Beste planik ere badago, adibidez, zinema kalean. Getxon, Biotz Alai plazan *Mystical* filma emango dute hilaren 8an. Algortako Txorimalo Gaztetxean ere pelikula emango dituzte eguenero eta hanburgesak jateko aukera egongo da. Erandion uztail-lean eskainiko dituzte filmak: Irailaren 23a plazan *El castor* uztailaren 8an eta *Medianoche en Paris* 29an; eta Josu Murueta plazan, *Codigo fuente* 15ean eta *Esta abuela es mi padre* 22an, denak 22:00etan. Sopelan Udaletxe plazan emango dituzte pelikulak uztail-ean, eta Urgitxieta plazan abuztuan, zapatuetan eta 22:00etan. Urdulizen ere emango dituzte. Hartu aulkia eta krispetak, saioa hasiko da-eta.

• **Non:** Uribe Kostan • **Noiz:** Uztail-ean eta abuztuan

LEMOIZ

► **Txapel Reggae.** Armintzan. Uztailaren 16an, 22:30ean.

ZINEMA

GETXO

► **Gaurik laburrena.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztailaren 6an gaztelaraz eta 7an euskaraz, 21:00etan. Doan.

► **Mystical.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztailaren 8an, 21:00etan. Doan.

► **La boda de mi familia.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztailaren 9an, 21:00etan. Doan.

ERANDIO

► **El castor.** Irailaren 23a plazan. Uztailaren 8an, 22:00etan.
► **Codigo fuente.** Josu Murueta plazan. Uztailaren 15ean, 22:00etan.

PLENTZIA

► **Zine-foruma: *Plencia* dokumentala.** Kandelaria kultur elkarteak antolatuta. Goñi Portalen. Uztailaren 14an, 19:30ean.

ANTZERKIA

GETXO

► **Jim, altxorren uhartean.** Algortako Geltokia plazan. Uztailaren 11n, 18:00etan. Doan.

BESTEAK

ERANDIO

► **Aisialdiaren txokoak.** Astrabuduko Josu Murueta eta Altzagako Irailaren 23a plazetan. Uztaila osoan, astelehenetik barikura.

PLENTZIA

► **Udan Atik Zra irakurtzeko tailerrak.** Astillero plazan. Uztail-eko martitzen eta eguenetan, 18:30etik 20:30era.
► **Goitibehera jaitiera.** Txipio aldan. Uztailaren 10ean, 19:30ean.

BARRIKA

► **Udatxiki programa.** 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat. Uztailaren 11tik 22ra.

GETXO

► **Letren terraza, udako liburutegia.** Algortako Geltokia plazan. Uztailaren 11tik irailaren 2ra.
► **Berto Jaialdi Mundiala.** Algortako Biotz Alai plazan. Uztailaren 13an, 21:00etan. Doan.

ERANDIO

► **Puzgarriak umeentzat eta txorizo-jana.** Gurutze Gorriak antolatuta. Irailaren 23a plazan. Uztailaren 14an, 18:00etatik aurrera.

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz




Gaur bandera...

“Entzun mesedez, gaur bandera gorria dugu hondartzan”. Gure kostaldeko sintonia horrela hasten da sarri. Orain hilabete hasi zen hondartza denboraldia eta makinaria dana martxan dago. Harea eta ura baino askoz gehiago aurki dezakegu Uribe Kostako hondartzetan, erabiltzai-leen erosotasun edo haserrerako: egurrezko pasarelak, TAO makinak, “txiringitoak”, dutxak e.a. Aizu! Crema, gorritu orduko!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Erietxeko umeak

ariketak egiten, Gorliz 1937

Mens sana in corpore sano. Buru eta gorputz osasuna lotzen dituen jakinduriaraz betetako esaldi horri jarraiki, Gorlizko erietxeko gaztetxoek, itsas-haize freskoa baliatzen zuten hondartzan giharrak luzatzeko. Jakin dugunez, 1937. urtean egindako argazkia duzu ondokoa; garai hartan, bonba hotsak gure lurretako ume askoren bihotz eta begiradak ilundu zituen, eta batzuek Gorlizen izan zuten osatzeko aukera. Urte asko joanagatik gauzak ez dira lar aldatu eta helburu beragaz lanean jarraitzen dute oraindino Gorlizko erietxean, eta eriek osasuna eta bizitza berreskuratu guran, eguneroko borrokan, itsasoari begira.

PLASENTIA BUTROE MUSEOA

[berbetan]

Lan-erreforma, presio fiskala, nahitaezko arbitrajea, pentsioen erreforma, murrizketak... hedabideetan behin eta barriz agertu arren, askorentzat ulertezinak dira oraindino gure etorkizunean eragin handia izango duten kontzeptu horiek guztiak. Ez barriz Adolfo Muñoz “Txiki”-rentzat (Mañueta, 1959). ELAko Idazkari Nagusi bezala ezagutzen dugu 2008tik, baina gaztetatik egon da lotuta euskal sindikalgintzari. Langileentzako garai gogorrak bizi ditugula argi badu ere, militantzia-lana mendiak mugitzeko gai dela uste du. Militanteak izan ditu buruan ELAko urtebetetze tartaren 100 kandelak amatatzean.

Adolfo Muñoz

Militantziarentzat 100 kandelak

Testua: **Maitane Nerekan** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zorionduz hasi behar dugu elkarriketa ELAk 100 urte bete behar dituelako uztailaren 23an. 100 urte betetzea ez da ohikoa, ezta? —Bizirik irautea ehun urte pasa eta gero eta indar honekin ailegatzea. Sindikatu abertzalea eta klasekoa da, Euskal Herrian gehiengoa daukana, %40 erki-dego autonomoan eta %21,5 Nafarroan. Ez da makala. Jende askok lan egin du. Ni militantziaren balioa azpimarratzen saiatzen naiz. Mendeurrenean bertan, ELAn egon diren belaunaldi eta erronkak hartu ditugu hausnarketa gai. Sindikatua hasi zenean, Hego Euskal Herrian hedatzea asko kostatu zen; gerra ailegatu zen eta gerra oso gogorra izan zen, han egon zen ELA bere batailoiarekin borrokan. Gerra pasa eta gero, erbestealdia sufritzea, urte gogorrak. Gero, sindikatua berriz berregituratzea eta esan dezakegu berregituraketa hori berfundazioa izan zela, 1976an egin zena Euban; kongresu hartan sindikatua martxan jarri zen berriro, printzipio ezberdinekin. Apustu sendoa egin zen eta talde sendoak hartu zuen gidaritza orain daukaguna lortzeko. Hori ere ez da gauza makala.

—Beraz, militantzian dago gakoa. —Bai. Edozein baldintzatan ELAren balio handiena militantzia izan da. Garai honetan gainera, klase sindikatu aldarrikatzailea aurrera eramatea militantziarik gabe ez da posible. Guk mendeurrena sindikalismoaren benetako funtsa militantzian dagoela azpimarratzeko erabiltzen dugu. —Garai ezberdinak aipatu dituzu. Zuk leku ezberdinetatik ezagutu duzu, ELA barrutik zein kanpotik. Zelan gogoratzten dituzu hasierako garai haiek? —Ni Eubako kongresu hartan egon

“Mendeurrena sindikalismoaren benetako funtsa militantzian dagoela azpimarratzeko erabili dugu”

nintzen, nahiz eta oso gaztea nintzen garai hartan. Han eztabaidatzen zen, esate baterako, niretzat garai hartan eta orain gauza oso inportantea dena: sindikatuaren autonomia. Autonomia alderdiengandik, botere ekonomikoengandik eta politikoengandik, gobernuengandik. Hori lortzeko eztabaida sendoa eta luzea

sindikatuaren finantziazioarena izan zen. Pentsatzen genuen eta pentsatzen dugu ez dela posible autonomia politikoa lortzea, dirua lortzen ez bada. ELAk afiliazioetatik lortzen du dirua. Garai hartan, esate baterako CCOO 50 pezetako kuota zeukan eta guk 200 pezeta jarri genituen. Ni oso gaztea nintzen, baina garai hartako zuzendaritzarentzat ideia hori tronkala izan zen. Eta ideia hori egon da 35 urte hauetan oso presente ELAn. Azken finean, ELAk esaten, hausnartzen eta egiten duena, autonomia delako egiten du. Guk ez diogu inori

baimenik eskatzen gure posizio sindikal eta soziala finkatzeko. Gure hausnarketak sindikatu barruan eztabaidatzen dira; eragina denak du, noski, baina inork ez digu esaten zer egin. Karguen bateraezintasuna ere eztabaidatu zen; horrek esan nahi du sindikatuaren zuzendaritzak, karguaren zentzu zabalean hartuta, ezin



duela parte hartu alderdien zuzendaritzan eta hauteskundeetan. Hori ELArentzat berria izan zen, EAJtik sortu baitzen ELA. Horregatik esaten dugu berfundazioa izan zela.

Bestalde, ikuspuntu abertzaletik, ELA prest egon da eta dago beste eragileekin batera defendatzen dugun subiranotasuna aurrera eramateko, guztiok gara gutxi Estatu horren aurrean hori egiteko. Lan hori ez dugu ondo egin, ez guk ezta beste askok ere. Hori aurrera eramatean, ELAk argi du sindikatu abertzalea dela baina baita klase sindikatua ere eta ez du baztertuko bere esparrua; pentsatzen dugu burujabetza-prozesu baten alde lan egiteko behar dugun jendearen artean, neoliberalismoak indarra kentzen diola. Gero eta sozialago bada prozesu hori, askoz hobe. Horretarako dago sindikatua esparru sindikalean, esparru sozialean baita esparru politikoan ere.

—**Belaunaldi ezberdinak aipatu dituzu. Gazteen kasuan, asko aldatu da ELAren zein beste sindikatuetara hurbiltzen den gizon-emakumearen tipologia?**

—Bai. Garai hartan, trantsizio garaian esate baterako, askatasun gose handia zegoen eta talde ezberdinetan eta gizartean hori sozializatuta zegoen. Orain ez hainbeste. Orain indarrean dagoen neoliberalismoaren eragin zuzena indibidualizazioa izan da, elkartasunik eza. Eta orain gehiago kostatzen da kolektiboa azpimarratzea eta kolektiboki lan egitea.

—**Beraz, jendea erakartzea gehiago kostatzen zaizue?**

—Bai. Hori egia da, baina adibide asko ditugu sindikatuan lana ondo eginez gero, jendea sindikatura hurbiltzen dela frogatzen dutenak. Hori esparru klasikoetan eta ez hain klasikoetan gertatzen da. Orain dela gutxi gatazka oso polita eduki dugu jantokietan. Emakumeak gehienak, toki ezberdinetan lan egiten dutenak eta haien artean elkar ezagutzen ez dutenak. Hori horrela izanda ere, lan bikaina egin dugu horretan, ez guk bakarrik. Eta esan

daiteke, sektore hori sindikalizatuta dagoela. Eta jende horrek asko baliatu du sindikatuaren eragina lan baldintzetan. Laburbilduz, ezin da onartu den-dena globalizazioaren menpe dagoenez hortik aurrera ezin dugula ezer egin. Ondo lan egiten bada, sindikatua edozein esparrutara heltzen bada, tresna oso baliagarria da jendearentzat.

“ELAk esaten, hausnartzen eta egiten duena autonomoa delako egiten du; inork ez digu esaten zer egin”

—**Orokorrean esango zenuke langileek sindikatuetan sinesten dutela?**

—Sindikatuaren lanaren arabera. Mespretxuz hedabide ezberdinetan lelo fabrikatu hori zabaltzen da: “jendeak ez du sindikatuengan sinesten”. Hori ez da egia. Jendeak sinesten du ondo egiten badugu lana; gehiago esango nuke, jendeak behar du sindikatua eta hurbiltzen da sindikatuak ondo egiten badu bere lana. Horrek antolakuntza esparruetara eramaten gaitu; hori da abagune honetan ondo egin behar duguna: antolatu. Orain gutxi liburu txiki bat argitaratu dugu; emakume batek kontatzen du adibidez, bi urte eta erdi lantokiz lantoki ibili zela, aspertuta. Bat-batean antolakuntza plana eztabaidatu, berriz hasi eta emaitzak lortu zituzten. Egoera oso gogorra da, politika-

“Ez da egia jendeak ez duela sindikatuengan sinesten; jendea hurbiltzen da ondo egiten badugu gure lana”

riek bakarrik utzi gaituztelako, baina ondo egiten baditugu gauzak lortzen dira.

—**Hor daukagu krisi ekonomikoa, politikoa, soziala... azken asteotan irakurri ahal izan dugu Bai Esan enpresak 113 langile kaleratuko dituela, hor dago Mercedeseko auzia... krisiaren ondorio-**

ak inoiz baino ikusgarriagoak dira?

—Ez, baina orain gaizkileek fruitua ateratzen dute. Nortzuk dira gaizkileak? Tranpatiak. Krisi honetatik probetxua ateratzen ari dira; krisiak langabezia dakar eta botere ekonomikoak langabezia tresna moduan erabiltzen du, diziplina-tzeko. Esate baterako, hori da Mercedesen gertatzen dena eta Euskaltel

eta Ibermaticaren artean egiten dutena emakumeekin. Mercedesek planteatzen duena ondokoa da: modeloa aldatzen da eta aprobe txatzen dute lan-baldintzak bertan behera uzteko. Soldaten esparruan esate baterako, 2008ko soldatak baino %17 gutxiago planteatzen dute. Bestalde, hornitzaileen tarifak %25 murrizten dituzte. Planteamendu hori ikaragarria da. Multinazionalak Gasteizen dituen 3.200 langileengan du eragina, baina baita beste askorengan ere. Politikariak agertu dira, Bernabé Unda sailburua eta Xabier Agirre ahal dun nagusia, eta biek arduraz jokatzeko eskatu digute. Arduraz jokatzek, lan-baldintzetan eragina izango du, noski; baina baita fiskalizazioan ere. Zuzen galdetu behar diogu Xabier Agirreri: nondik

pentsatzen du zergak ateratzea langileei tamainako erasoa egiten badie multinazionalak? Politika horrela dago, ez dute ikusi nahi zer gertatzen den. Mercedesen kasua onartezina da guretzat eta lan handia egin behar dugu horren kontra. Beste adibidea: Euskaltelek telemarketinga aldatzea erabaki du eta ez dago subroga-

ziorik. Subrogazioak suposatzen du nahiz eta enpresa aldatu lan-baldintzak mantentzen direla. Hori Iberdrolarekin gertatu zen; pentsa Iberdrolak zenbat irabazten duen eta zenbat axola zaizkion langileen lan-baldintzak. Euskaltelekin gauza bera gertazen da; enpresa aldatzen da, Bai Esan kanpora bidali eta Ibermatica jartzen dute hori kudeatzeko. Azpimarratu behar da Euskaltelen presidentea Lehendakaria izan zena dela, eta Ibermaticaren kontseilari delegatua dela Ardanzarekin egon zena Sailburu Ogasunean, Larrea jauna. Hori da beste adibide bat: zelan funtzio publikoetan, komatxo artean, egon direnak, mundu ekonomikoetara pasatzen diren horrelako gauzak planteatzeko. Oso gogorra da, lan-baldintzak oso prekarioak dira eta helburu bihurtzen dugu lan-baldintza horiek bertan behera uztea. Horretarako dago sindikatua. Nahiz eta hedabideetan oso gutxi agertu lan eskerga daukagu.

—**Krisi garaian oraindik lan gehiago duzue, baina baita langileak mobilizatzeo erraztasun handiagoa ere?**

—Zaila izan da beti. Orain gainera, patronalak erabiltzen duen langabeziaren diziplina aipatu behar da. Zer bilatzen du Mercedesek? Nik ere du berria ekarriko dut nire eskaerak onartzen badituzue; ez badituzue onartzen, ez dago ere du berririk. Eta langabezia jartzen diete aurrean; diziplina moduan erabiltzen dute langabezia eta zaila da jendea mobilizatzea beldurrez badaude. Xantaiagile profesionalak dira. Meritu handia dauka horri aurre egiteko militanteen lanak. Militantzia sendoa eta ideologikoki formatuarekin, xantaiari aurre egiten diogu.

—**Azken urtean batasun handia ikusten ari da euskal sindikalgintzan. Eroso sentitzen zarete egoera horretan, aurrea jarraitzeko asmoz?**

—Egoera ikusita premiazkoa da horretan sendo lan egitea. Azken urte hauetan

elkarrekin asko egin dugu eta gehiago egin behar dugu. Ezin da esan egoera oso txarra dela eta elkarrekin lan ez egitea. Gutxiengo sindikalarrekin ez da posible lan egitea; ez borondaterik ez dugu-lako, haiek beste ere du batean bizi dire-lako baizik. Elkarriketa sozial horretan, gobernuek egiten dutenari babesa ematen ari zaizkio. Bai Espainian, orain dela

“Hego Euskal Herrian European dagoen presio fiskala ezarriz gero, 8.000 milioi euro gehiago lor daitezke”

gutxi sinatu zuten pentsioen erreforma esate baterako; bai hemen, gutxiengo sindikala izanez, baina babesa ematen diote Lopezi eta Nafarroan Sanzi eta orain Barcinari. Horretaz aparte, euskal gehiengo sindikalak asko egin du, baina hau ez da amaitu, ez da egoeraren araberrakoa. Iraungo du eta kalte gehiago daude ikusteke; murrizketa gehiago prestatzen daudela jakin izan dugu, oporren ostean argitaratutako direnak. Horren aurrean euskal gehiengo sindikalak erronka oso zuzena dauka.

—**Beraz, lan-erreformaren larritasuna premiazko gaia da zuen agendetan.**

—Lan-erreforma eta elkartasunean oinarritutako ere du soziala aurrera eramateko landu beharreko fiskaliteta. PP, PSOE eta EAJk ez dute fiskaliteta aldatu nahi; haien artean ados daude. Oso injustua da orain dagoena; orain ari dira esaten kontuan hartzeko sarrerak murriztu direla azken urte hauetan, sailburuaren arabera gutxienez 500 milioi euro gutxiago sartu dira. Guk beti esan dugu Hego Euskal Herrian European dagoen presio fiskala ezarriz gero, 8.000 milioi euro gehiago lor daitezkeela. Ez da egia alternatibarik ez dagoenik; gertatzen dena da, hori aurrera eramateko borondaterik ez dagoela.

—**Eta lan-erreformari dagokionez?**

—Hor esparru bi daude erreforma ho-

rrek zer suposatzen duen jakiteko. Alde batetik, eskubide batzuk bertan behera uzten ditu. Adibide moduan, gogorrena ultrajarduerarena da. Lan-esparruan hitzarmena amaitzen bada, hitzarmen horretan dauden baldintzak mantentzen dira beste hitzarmen bat sinatu arte; hori oso garrantzitsua da langileak eskubide gabe ez egoteko. Lan-erreformarekin

hori aldatu dute; malgutasuna sartzen da eta enpresariari botere handiagoa ematen zaio. Nahitaezko arbitrajea sartzen dute epe laburrean hurrengo hitzarmena sinatu ezean. Horrek suposatzen du orain arte ezagutu dugun ultrajarduera bertan behera geratzea. Bestalde, beste esparruak euskal sindikalismoaren aurrekin du zerikusia. Orain arte, euskal sindikalismoak aukera izan du erabakitzeko zein eduki landu nahi dituen. Enpresa, herrialde, erkidego eta estatu hitzarmenak ditugu. Erreforma honek planteatzen du Estatuko hitzarmen sektorialek esan dezaketela hemendik aurrera zer eta non negoziatzen daitezkeen. Hori bertan behera uzten du Euskal Herrian orain arte izan dugu gaitasuna hori hitzartzeko. Gaur jakin gabe zer gertatu den Espainiako Legebiltzarrean azpimarratu nahi dut, martxoan EAJrekin egon ginela, gure Nazio Batzordeak egin zuen ebazpen potoloa aurkezteko, bagenekien hau helduko zela; azaldu genien zeintzuk ziren gure kezkak. Bilera amaitu zen eta jakinaren gainean mantenduko gintuztela esan ziguten, baina aspaldi ez dugu jaso inolako berririk EAJrengandik. Sinestezina. Madrilen oraintxe erabaki-tzen ari da zein izango den euskal sindikalismoaren esparrua eta oso gogorra da haiek bere kabuz adostea, euskal sindikalismoarekin hitz egin gabe. ○



Munduko hiru bazter

Munduko lau bazterrak oso ezberdinak dira euren artean eta horren adibide argia ekarri digu Jon Goikouria (Bilbo, 1986) sondikarrak UK-ko ale honetara. Hurrengo orrietan munduko hiru baztertera egindako bidaien argazkiak ikusteko aukera izango duzu:

Mauritania, Ipar Irlanda eta Cancun.

Kazetaritzan zein ikusentzunezko komunikazioan Leioan lizentziatu ostean, Goikouriak Berbaz Basauriko herri-aldizkarian egiten du lan egun.

Astia duenean bidaiatzea du gustuko, betiere argazki-kamera eta errealitate ezberdinak ezagutzeko gogoia lagun dituela.

Argazkiak: **Jon Goikouria**

<http://www.flickr.com/photos/jongoikoh>











BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARKO



GIZONENTZAKO
MODA

Tel: 94 460 70 84
ALGORTA

[zinema]

Kameratoia Uribe Kostan

Film laburren rallya egingo dute uztailan, **23an** banatuko dituzte **sariak**



Topaguneak antolatzen du Kameratoia

Hartu kamera eta hasi grabatzen, euskarazko film laburren rallya hastear baita. Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak antolatzen du urtero eta Uribe Kosta aukeratu dute aurten lehiaketa garatzeko. Horregatik, Uribe-Kosta Mankomunitatearen eta Sopela, Urduliz eta Lemoizko Udalen laguntza jaso du ikus-entzunezko rallyaren zazpi-garren edizioa gauzatzeko. Ekimen honengaz gazte euskaldunen sormena sustatu gura du Topaguneak.

Dagoeneko izena eman dute parte-hartzaileek, eta orain, edukia zehazteko zain daude; izan ere, uztailaren 9an emango du antolakuntzak filmen gaia

eta ezaugarrien barri; Urdulizko Kultur Etxean batuko dira Kameratoiko arduradunak eta gazte egileak. Xehetasunak argi, bost egun izango dute bideo edo filma idatzi, grabatu, editatu eta aurkezteko, beraz, sormena eta trebetasuna.

Creative Commons lizentziapean zabalduko dituzte lanak

na erakutsi beharko dute, ezarritako gai eta ezaugarriak errespetatzen dituen bideoa egiteko. Bakarka zein taldeka parte hartuko dute. Beranduenaz uztailaren 14an aurkeztu beharko dituzte lanak, eta orduan hasiko da epaileen eginkizuna.

Hiru sari emango dute, 1.500, 1.200 eta 900 eurokoak. Sopelako Kurtzio Kultur Etxean banatuko dituzte uztailaren 23ko ekitaldian eta filmak erakutsiko dituzte. Antolatzaileen iritziz, gazte euskaldunen artean badago hori eta gehiago ere egiteko irudimena eta gaitasuna.

Bideoak Creative Commons Aitor-tu-Partekatutako lizentziapean zabalduko dituzte, “*eduki kulturalak erabiltzeko lizentzia horrek, ‘copyright’ ezagunak ez bezala, sormen lanen zabalkundea errazten du eta*”. ○

www.kameratoia.com



Kopiak **SALGAI**
UK aldizkariako bulegoan

Martikoena 16, 2. solairua **Algorta** (Getxo)
Alangoko Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



Txapel Reggae, uztailak 16

Euskal Herriko eta atzerriko musika taldeek joko dute Armintzako Reggae jaialdian



www.myspace.com/txapelreggae

Gerriak dantzan hasten dira Armintza Txapel Reggae entzuteagaz batera. Uztailaren 16an ospatuko dute jaialdia, zapa-tuan. Armintzako Jai Batzordeak antolatzen du ekimen arrakastatsua eta dagoeneko 21 urte beteko du. Zazpi talde igoko dira oholtzara oraingoan.

Euskal Herritik bertatik iritsiko dira Tacumah Reggae Band, Thunder Clap Sound System eta Orabai Perkusioa. Atzeritik, barriz, Lyricson (Ginea-Frantzia), One Blood Sound (Katalunia), General Levy (Erresuma Batua), Smooth Beans (Kantabria), Ki Sap (Valentzia),

Heartical Sound (Frantzia) datozkigu. Gaueko 22:30etik aurrera bustiko dute reggae doinuaz eta erritmoz Armintza. Gainera, bestelako ekintzak ere izango dira eta herrian zehar entzungo dira *sound system* zein perkusio kalejirak.

Auzoko jaiakaz batera izaten da Txapel Reggae eta Jai Batzordeak beste hainbat ekitaldi ere antolatu du. Barikua 15etik domeka 17ra egongo da zer aukeratu: umeentzako jolasak eta puzgarriak, sardina-jana, pala-partidak, berbena, rasta-poteoa, herri-bazkaria, tortilla-txapelketa, txiste-lehiaketa edota ur-jokoak. ○

diskoak

Neure txiki polita
Gontzal Mendibil
Elkar



Gorbeia kantatzen dio Mendibilek: “*Kantuz eta oroituz Gorbeia dugu entzungai, ondare preziatua, ikur eta lanabes, nekez, pozez eta algaraz, aroz aro, atzo, gaur, bihar, betiro Gorbeia eta bere ingurunea kantu kantari dugu bizigai*”. Irudimenez jantzia, esandako eta esan barik geratu denaren gainean moldatua da, Gorbeia legez.

Promenade
Joaquin Chacon
Hotsak



Bederatzi kantu batzen du lan honek: gitarra jotzaileak berak idatzitako sei gai eta ondo asko aukeratutako hiru *standard*. Gainera, bidaia lagun ezin hobeek lagundu diote grabazio honetan, Gonzalo Tejada kontrabaxu-jotzaileak eta Jo Krause bateria-jotzaileak. Hartara, gura bezala ibili da Joaquin Chacon.

Escaldante banda
Garotas suecas
Vampisoul



60ko urteetako Tropicalia mugimenduko (Caetano Veloso, Os Mutantes edota Gilberto Gil) jarraitzailea da taldea, baina pop doinuek biribilduta daude disko honetako kantuak eta bestelako erritmoak ere antzeman daitezke: jazz, soul, funk e.a. Beraz, doinu dantzagarriak eta exotikoak dakartza, udako jaietan gozatzeko horietakoak.

musika etxe > sarea sortu dute

Musikari eta zaleen prestakuntza eta baliabideak ugaritzeko asmoz sortu dute Euskal Herriko Musika Etxe Sarea Bilborock, Gasteizko Jimmy Jazz, Bermeoko Kafe Antzokia eta Miarritzeko Atabal aretoak. Krisiak musikan ere eragin du eta aretoak ez ei dira betetzen; beraz, areto formatutik atera gura dute kontzertua. Lau funtzio izango ditu egitasmoak: prestakuntza eskaini, sormena garatu, erakustaldiak antolatu eta musika hedatu. Bide horretan ikastaroak edota diskoak grabatzeko bekak eskainiko dizkiete ekoizle eta zaleei. Lau aretoek 118.000 laguneko bisita jasotzen dute urtean, baina proiektuaren bidez, 635.288 pertsonari eragiteko gaitasuna izango ei dute.

guaitorock > finalistak

Dagoeneko badaukagu Guaitorock maketa lehiaketaren finalisten zerrenda. Maiatzean eta ekainean jokatu zituzten lau finalerdiak eta honakoak dira taldeak: Algortako Txorimalo Gaztetxe-ko finalerdian sailkatu zen Psyko taldea (Portugalete), Kukutzako lehen finalerdian Baltzak (Algorta), bigarren finalerdian Kilaua (Durangaldea) eta Itzurbaltzetako finalerdian, Ertz (Algorta) eta Urban (Bilbo). Finala irailaren 16an izango da Algortan, baina oraindik zehazteko dago lekua eta ordua. Irabazleek maketa grabatuko dute Urdulizko Tio Pepe estudioan. Guaitorock 2010eko irailan egin zen lehenengoz, Getxoko Andra Marin.

www.guaitorock.com

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleagaz bat)
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bítxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Itzulpengintza sustatuz Lehiaketa egingo du EIZIEk Literatura Unibertsala bilduman lanak argitaratzeko

Literatura Unibertsala bilduma osatzeko lanean dihardu EIZIE Euskal Itzul-tzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkar-teak. Bildumaren hirugarren aroan sartuta daude iaztik, beste 50 obra argitaratzeko helburuagaz. Horregatik aurten ere egingo dute itzulpen-lehiaketa. Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeek kaleratuko dituzte aukeratutako egitasmoak, bilduma honetarako bat eginik. Proiektuak uztailaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira.

Oraingoan hamasei obra hautatu ditu EIZIEk, besteak beste, *El siglo de las luces* (Alejo Carpentier), *Solaris* (Stanislaw Lem), *A ordem natural das coisas* (Antonio Lobo-Antunes), *La pelle* (Curzio Malaparte) eta *Frankenstein* (Mary

Uztailaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira proiektuak

Shelley). Lehiatzaile bakoitzak obra bate-rako edo gehiagotarako itzulpen-proiektuak aurkeztu ditzake.

Hautatu liburuaren 10 orrialdeko laginaren itzulpena aurkeztu behar dute, baita itzulpena egiteko erabili den jatorrizko liburuaren fotokopiak ere. EIZIE elkartearen egoitzara bidali behar dira



info+: www.eizie.org

proiektuak (Zemoria 25, behea – 20013 Donostia).

Lehiaketarako propio osatuko dute epaimahaia Eusko Jaurlaritzak izendatutako itzulpen-munduko aditu batek, itzulpenen argitalpena egingo duen argitaletxeak proposatutako batek, eta EIZIE elkarteak izendatutako beste batek.


Esleitutako lanen itzultzaileakaz kontratua sinatuko du EIZIEk, eta obraren luzeraren arabera zehaztuko dituzte itzulpena egiteko epe-muga eta ordainsaria. Argibide gehiago jasotzeko info@eizie.org helbidera mezua igor daiteke, edota 943 277 111 telefonora deitu. ○

liburuak



Tiroa kontzertuaren erdian
Belen Gopegui
Txalaparta

Belen Gopegui Kaliforniako unibertsitate batean emandako hitzaldi batean esandakoa batzen du saikera lan honen. Literaturan politika gaiak lantzeak duen eraginaz hausnartu du Gopegui, euskal literaturaren adibidea abiapuntutzat hartuz. Eider Rodriguezek egin dio hitzaurrea.



Zamaontzia
Iñigo Aranbarri
Susa

Serenity Star izeneko Libiak zamaontzia agertu zen Abrako badian. Barruan hamalau marinela zeuden, ontzi erdoiduan, hilabeteetako soldadak kobratu barik. Nerea eta Mateo aitite motordun txalupan arrantzan urten eta itsasontzi mistriotsura hurbiltzen ziren.

[kirola]

Piragua hartu eta **dzanga!** Plentziako Itsasadarraren XXI. igoera eta jaitsiera mitikoa ospatuko da **uztailaren 9an**



laz 150 lagun baino gehiagok hartu zuen parte

Sasoi egokia da uda ur-kiroletan aritzeko. Itsasoa plisti-plasta egiteaz gain piragua hartu gura duenak, galdu ezinezko hitzordua izango du aurten Plentziako itsadarrean, urtero legez. XXI. edizioa uztailaren 9an ospatuko dute, Plentzia Piragua Taldeak antolatuta, eta iaz baino parte-hartzaile gehiago batzea espero dute. 2010. urtean 150 lagun eta 25 taldek hartu zuten parte. Euskal Herriko herrialdeetatik ez ezik, kanpotik ere parte-hartzaileak jasotzen dituzte. Lau kategoria banatu dituzte, adin eta generoaren arabera. Ibilbidea, bere aldetik, ohikoa izango da. Plentziako hondartzatik urtengo dira piraguan, 11:30ean, itsasadarrean sartuz (eguraldi kaskarra bada, urteera-lekua aldatuko lukete). Isuzkiza ingurura heldu ostean, hondartzarainoko buelta egingo dute, 11 kilometroko ibilbidea osatuz. Antolakuntzak azpimarratu duenez, gomendagarria da ibaietako timoia erabiltzea.

Itsasadarraren jaitsieraren ostean piraguan ibiltzeko gogoz jarraitzen duenak,

bigarren aukera izango du uztailaren 23an, 11:00etan. Egun horretan ospatuko da X. Plentzia-Billano-Plentzia zeharkaldia. Aurretik, baina, beharrezkoa izango da izen-ematea, uztailaren 21a baino lehen. Proba hori, gainera, Itsasoko Kayak-aren Euskadiko Koparen III. proba izango da. Lau kategoria banatu

X. Plentzia-Billano zeharkaldia uztailaren 23an egingo da, eman izena!

dituzte, eta modalitate bi: sprinter eta tradizionalak. Kasu honetan, gizon eta emakumeek alkarregaz parte hartzeko aukera izango dute.

Bestalde, Andoni Intxaurtieta kideak zehaztu duenez, Plentzia Piragua Taldeak piraguan aritzeko ikastaroak antolatzen ditu udaro. 2010. urtean 400 gazte baino gehiagok hartu zuten parte taldeak gidatutako ikastaroetan. Horretarako, web orriaren bitartez piragua taldeagaz harremanetan jar daiteke. ○

Info+: www.piraguismoplentzia.net

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Koldo Belasko > erlezaina

“Mendiko giroa desberdina da behar ikuspegitik; polita, baina gogorra”

Udabarrian zelaiak loratu dira eta erleek goxoki atera diete zukua eztia egiteko. Koldo Belaskok aspaldi nabaritu zuen euren ziztada eta erlezaintza egin du ogibide. Baina ez ei da lanbide batere samurra...

—Erlezaina zara, baina belatzakaz ere bazabiltza, ez da ohikoa.
—Lagun baten baserrian daukat belatza. Orain hogei urte Hanburgon ibili nintzen belatzak hazten, inkubagailuakaz eroaten. Iaztik daukat belatza, baina orain zaletasun bezala; mundu hau menperatzeko ahaleaginean nabil, falkoneria ez baita erraza.
—Profesionalizatzeko asmorik badaukazu?
—Ez, baina aukerak egon badaude. Izurriteak kontrolatzeko saioak egiten dira aireportuetan e.a. Eta nire lagun batzuek erakustaldiak egiten dituzte.
—Eta erleenganako zaletasuna nondik datorkizu?
—Gure etxean ez da egon zaletasunik horrelako gauzakaz. Algortako Portu Zaharrean txikitan ikusi nuen lehenengoz erle bat, erlauntza bat agertu baitzen. Orduan piztu zitzaidan gogoia eta 15 urtegaz nahiko erle baneukan.
—Orain ogibide daukazu?
—Hori da, hainbat lekutan dauzkat abaraskak. Neguan kostaldetik gertu izaten ditut, adibidez Berangon, Unben, Plentzian, Zeberion e.a. Udan Gorbeiara edota Nafarroara eroaten ditut. Eukalipto zein milflores eztia eta haritz miela-toa egiten ditut eta gero saldu, labela daukate nire produktuek.
—Zelako egoera bizi duzue erlezainek?
—Gogorra da erlezain izatea, erlezaintza-



Belaskok 800 abaraska dauzka, hainbat eremutan banatuta

gaz soldata bat jaso arte urteak igaro behar dira eta diru asko inbertitu behar da. Buruan sartuz gero egin egiten da, baina bestela ez dio inork eusten, urte asko behar da ikasi eta produkzioa, erleen beharrak, loreen kontuak eta salmenta menperatzeko. Ni pozik bizi naiz, mendia eta erleak oso gustuko ditut eta

“Portu Zaharrean ikusi nuen erle bat lehenengoz, erlauntza bat agertu baitzen, orduan piztu zitzaidan gogoia”

800 abaraska dauzkat. Erleakaz zoratuta bazaude egingo duzu, bestela, zaletasuna edo osagarria izango da. Mendiko giroa behar ikuspegitik oso desberdina da, polita da baina ez da bulegoa. Baserritarrek ulertzen ditut orain; bizimodu polita da, baina gogorra.
—Orain, gainera, asiar liztorren meha-

txua ei dago, eragin dizu?
—Ez dira iritsi Bizkaira, Gipuzkoan daude, baina etorriko dira. Dena dela, ez daukat beldur handirik. Frantzian badauzkat hainbat lagun erlezain eta bertario desberdinak daude, baina hemen natura oso izorratuta dago. Paue alde hartan flora oso naturala dago, zuhaitzak

eta loreak. Baina hemen dena dira pinuak eta eukaliptoak. Gainera, hemen erleak jaten dituen bestelako liztor handi bat ere badago. Frantzian milaka liztor dago, baina hemen gutxi batzuk dira eta ez dute kalte larregirik egiten. Uste dugu bertako flora dela horren artifiziala, asiar liztorra ez dela hedatuko. Ikusiko da. o

Fredi Paia

Satsetan egiten

Sanjuanak igero direz eta eurekaz batera, uda akaba arten, gure eskualdeko herri eta auzotako jaiek bata besten atzen etorko direz. Atxineko sasoiaren bere erro-meri eta jolasak ixeten ziren, geurko txatal-txun, gure arteragokok gaztetasunegaz horren lotute dauen sasoi hau zelan bizi euden esplikatzen ahaleginduko garez.

Plencia la gallarda saluda a los forasteros de afuera. El que no sepa leer que siga la flecha. Aitite-amamak ondo akordaten direz Plentziako San Antolinetan herriko sartu-nen iminten euden letreruez. Sasoi beten herrietako musike bandek girotuten eude-zan erromeri eta jantzaldik. Algortan bere *maestro cebolleta* eretxon zuzendarik eroten iaun musike bande, apurke-apurke, herriko etxeko diruk aurreztuteko edo, ia duztik desaparezidu ziren arten.

Erromeri eta jantzalditen neska-mutil gaztek alkar ezetu eta lelango bikotek osotuten eudezan. Jantzara neskatok urtetan euden hasikeran, bikoteka para eta 60ko hamarkadara arte modako jantza zan pasadobleri ekiten eutsen. Ordun mutikon aldi ailegaten zan, eta neskatongana jotzen ziren eurakaz jantzan iteko baimen eske. Alkar-rreri oratute egiten ziren jantzetan kobrado-rek egoten ziren, eta neskatok debalde euki-ten baeuden bere, mutilek pasodoble ba-kotxen hainbateko bat paga ber ixeten euden. Holan egin ezkeron tela zatitxu bet eukan orrotza iminten eutson kobradorek mutileri paparren.

Soltun egiten ziren jantzak, oster, jote eta porrusalde batez bere, debalde ixeten ziren duztintzet.

Geurko lez, hamaka pasadizo ixeten ziren neska-mutikon bikotek osotute lotzen ziren jantzalditen. Esaterako, Armintzen ba ei egozan neskato bardinez gustata egozan lagun bi. Uden, ingeruko erromeri duztite-ra jotzen ziren alkarregaz, gustaten ekien neskato ikusteko amesen. Jaie zelebaten



Plentziako dantzaldia

zan lekure ailegaten zirenen bisteaz bilatzen euden neskato. Behin ikusite, mutiko biek limonde bat koisten ei euden alkarreaz eta Armintzerako biden iminten ziren atzera

«Neskaren etxe aurren despedide ixeten zan. Txoko ilunena sastegi ixeten zan, alde-etxeko atzeko alden, gorta ondon»

bere, pozik, gustaten daken neskato ikusi eudela-eta. Barrikeko 90 urteko andrak, oster, bere gazte sasoi jantzaldi edo jola-san ganen itaundute kopla honegaz erantzun euskun:

*Maite bakarra baino
bi hobeak dire
bateri ondo esan
bestea begire.*

Jantzaldik arimetako kanpak entzuten zirenen akabaten ziren. Hau da, ilunden, eguzkiko argi jotzen zanen arimetako kanpak

joten eudezan gure herriteko elextan. Or-duti eurrera arimek mundure urtetan euden beginzino sano sustraitute egoan sasoi beten. Horrexeaiti, arimetako kanpak jotzen eude-zanerako, gaztek, neskatok batez bere, etxen egon ber euden.

Ordun hasten zan neskalaguntza eretxo-na. Alkarreaz jantzan ibiliteko bikotek etxe-rantza jotzen ziren eta mutilek neskatori la-guntzen eutson etxera. Berangoko andra ba-tek konta euskun zelan berak etxera joteko bide bi eukazan mutilen batek laguntzen eutsonen. Bata luze, mutiko sano gustoko za-nen, eta beste laburre, garestiko kasuterako.

Neskaren etxe aurren despedide ixeten zan. Txoko ilunena sastegi ixeten zan, alde-etxeko atzeko alden, gorta ondon. Bertan alkarrer berotasune emoteri satsetan ite es-ten dako gure eskualdeko hamaka txokotan. Eta Leioa, Lemoiz eta Erandioko hainbet auzotan mutikok tabernan baten lotzen zi-ren neskatori etxera lagundu osten. Alkarren prakeri aditu eta lohien eukazanari, hau da, satsetan gehien egin iaunari inbidizko adarra jote ixeten ei zan usadio. o

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



motaTx
txakolina

leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

WWW.UNAITABERNA.COM

94 466 16 61

URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



Cafeteria Cosmopolita

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAIZTEGUI

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea
gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[udako**zaporeak**]

Paella Getxon eta

Plentzia, Gorliz eta Leioan



Getxoko Nazioarteko Paella Lehiaketa uztailaren 24an ospatuko dute

Aurreko zenbakian ekin genion atal honi, sukaldaritza txapelketei kasu egingo diegu uda honetan. Rabua atera genuen aurrekoan, paella ekarri dugu oraingoan. Getxoko paellak oso ezagunak dira, baina beste hainbat herritan ere egiten dituzte: Plentzian uztailaren 10ean, Getxon 24an, Gorlizan abuztuan, eta Leioan, irailean.

Gaurko errezetaren barri eman digu Agus Rasinesek, Getxoko Nazioarteko Paella Lehiaketa hainbatetan irabazi duen Txotxongilo koadrilakoak.

Batetik salda egiten du otarrainxka azalakaz. Txirlak eta muskuiluak ere egiten ditu, beren saldan. Bestetik, haragia frijitzen du. Ondoren, paella-ontzian frijitzen ditu barazkiak. Jarraian gehituz doa apurka

tomate naturala, haragia, arroza eta salda (bi saldak nahastuta, otarrainxkena eta txirlak egostean atera dena). Astiro egin behar da, eta bero handia hartuz gero sutik kendu, ez erretzeko. Aipatzekoa da Txotxongiloko lagunak azalak, hezurak eta oskolak kentzen dituztela paellari gehitu aurretik.

Jakina denez, sukaldariek badute beren sekretua, baina hortik urrun, Rasinesek dioenez, garrantzitsuena da salda, lehengaiak eta sua; uneoro begiratu behar zaio, arroza pasa ez dadin. Dagoeneko ahoa urtzen ari zaigu... o

Osagaiak: arroza, tomate, piper gorria eta berdea, tipula, berakatza, gatza, olio eta bakoitzak gura duena, paella honetan: oilasko izterrak, txarri haragia, txirlak, otarrainxkak, eta muskuiluak



Jurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Zigortzaile, penatzaile. 2. Gipuzkoako mendizale ezaguna. Galdetzaile bat. 3. Izaki edo gauzaki bat adierazten edo gogoratzen duten lerro, kolore edo forma multzo. Eskean. 4. Teilapeko ohol. Ipar Euskal Herrian, solairu. 5. Negar asko egin ohi duenaz esaten dugu. Nitrogenoaren ikur kimikoa. 6. Hidrogenoaren ikur kimikoa. Gizon izena. 7. Gauza, gaia. Solas, hizketa gai. 8. Egitekoa, betebeharra. Ohe edo antzeko baten gainean nork bere burua ipini. 9. Joaki da. Erlijio gizon, lekaide. 10. Erraz eskuratzen dena..

Goitik behera

1. Ez erraz, ez samur. Izurri. 2. Ekialdean, esan. 3. Antzemanak, igarriak, sumatuak. 4. Zenbaki balio desberdinak har ditzakeen ikur eta elementua. Uranioaren ikur kimikoa. 5. ...gabe, etengabe. Sortu zintuena. Frantzioaren ikur kimikoa. 6. Zura, bokalik gabe. Baita. Modua. 7. Lehenengo bokala. Hesi edo hornen arteko bideak edo kaleak. 8. Era-kunde. 9. Oiloez eta hegazti emeez mintzatuz, arrautzen gainean jarri txatatzen ari dena. Ote sail. 10. Haziak lurrean bota. Momentua.

Soluzioa

V	I	O	K	V	R	U	K	S	E
E	D	I	V	R	F	V	O	D	
N	Z	I	E	V	N	V	L		
U	I	U	V	V	I	V	K	E	
	O	I	H	E	W	V	M	H	
N		I	T	R	V	G	E	N	
I	V	T	S	E	V	T	V	L	
E	K	S	E		I	D	U	R	I
R	O	N		R	A	V	L	V	V
E	L	E	A	I	L	Z	A	H	Z



Bittor Egurrola

PLENTZIAKO UDAKO LAGUNTALDEA, 1960-09-11

Txipio paduran hiru baserri (gaur bat ere ez) zegoen; lehenengo baserrian egin ziren "Primeras Jornadas de Tiro de Pichón" hiru egunetan, goiz eta arrastiz, arrakasta handiz. Tiratzaileak ez ziren izan Bizkaikoak bakarrik; Araba eta Gipuzkoatik ere asko etorri ziren. Jardunaldi horietarako prestatutako tabernako argazkian, neska-laguntalde bat dugu gurasoen ezagun bategaz. Neska batzuk plentziarrak ziren, beste batzuk udatiarrak; udako laguntalde, beraz. Beraien gurasoak ez ziren tiratzaileak, Javier Basagoiti antolatzailearen lagunak baizik. Sariak trofeoak izan ziren eta batutako dirua Barrikako Asilorako. o

Izenak: Gloria Etxebarria (plentziarra), Mentxu Uribe (gurasoak plentziarrak), Guadalupe San Cristobal (Zaragozakoa), Txomin Hormaetxea (Negurikoa) (GB), Margari Lacalle (madrildarra), Mercedes Gangoiti (plentziarra).

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein lanbide du 46. orrialdeko elkarriketatuak?

> Aurrekoaren erantzuna: Urko Aristi
> Irabazlea: **Ziortza Vega***

*deitu telefonoz: 944 911 337

Zein jantzi berezi jartzen dugu igerilekuan?

- **Bainujantzia**
- **Arrantzale gona**
- **Azpikogona**

> Aurrekoaren erantzuna: Igerilekuan
> Irabazlea: **Ander Sarasketa***

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

NORA

hilabetekariaren sei hilabeteko harpidetza doan

SARIA

berria

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma

ANA SABOYA > Canteca de Macao taldeko abeslaria

“Animalia izatekotan, katua izango nintzateke; beltza eta librea”

Testua: **Julen Nafarrate**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Uf... zaila da. Orain dela urte batzuk argi neukan, baina oraindino nire buruak harritzen nau, nire burua ezagutzen jarraitzen baitut.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Musikan ezin bada, pentsatu beharko nuke, ez diot beldurrik lanari...

Eta zertan ezingo zenuke jardun?

Istiluen kontrako polizia edo militar. Ez naiz gai ordezkatzeko ez nauten eta bidezkoak ez diren interesen alde bortizkeria erabiltzeko.

Aitor dezakezun bizio bat.

Plazerrak gustatzen zaizkit.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke? Zergatik?

Gizaki bezala, narrasti eta animalia arraroak asko gustatzen zaizkit. Baina animalia izango banintz, katua izango nintzateke; beltza, eta librea.

Zein da zure ametsetako bat?

Antzokia jendez lepo, egundoko soinekoagaz, luma-lepokoagaz eta eszenatokian erretzen. Kamerinora heldu, eta nire jendea dago barre algaraka eta rona edaten. Orduan esaten didate: zure amak loteria irabazi du eta zure ahizpak munduko primate guztiak babestu ditu! Eta danok batera Camaronen kontzertu batera goaz, gonbidatu gaituelako, eta...

Biharko egunkarian zein barri irakurri gura zenuke?

“M-15 mugimendua dela-eta, Espainiako politikariek hausnarketa egin eta mugimenduko bozeramaileakaz elkarriketa egingo dute”.

Miresten duzun historiako pertsonaiaren bat?

Clara Campoamor.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?

Gazpatxoari tipula larregi bota, solasaldi on baterako ez da oso egokia...

Barriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Petrara, Jordanian, beduinoek asko hunkitu ninduten. ○

LABURREAN— “Kalea eszenatokira igo”. Hori da Canteca de Macao talde madrildarraren filosofia, eta horren erakusle izan zen uztailaren 2an Sopelako jaietan eskaini zuten kontzertua. Ana Saboya (Madril, 1982) arduratzen da aldarrikape-nez betetako letrei ahotsa jartzen. 14 urte gaz, aitzak gitarra oparitu eta orduan hasi zen orain arte musika eta espektaku-luagaz duen harreman estua. Punk talde batean parte hartu ostean, Canteca de Macao sortu eta hamarkada bete du ber-tan “bizitzen, maitatzen eta amets egiten”. Letren bidez hortzak erakusten ditu Anak, baina ahaztu barik hortzak erakus-teko modurik onena irribarre egitea dela!

Zabaldu euskararen atea



Hauxe da aurreztu dezakezuna zure establezimenduaren errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz jartzen badituzu

%50 gehienez 360 euro, euskaraz hutsez jartzen baduzu.

%30 gehienez 180 euro, euskarazko testuak lehenetsuna badu.

Getxoko enpresa hauetan eska dezakezue zuen errotulua, lehenengo seletan, gainera, deskontu gehigarria egingo dizuete:

%10 eko deskontu gehigarria euskaraz jartzen baduzu.

%5 ekoa euskaraz eta gaztelaniaz jartzen baduzu.

TOLDOS Y PERSIANAS MURGUIA

Euskal Herria 23. 94 464 04 52

RÓTULOS PUBLIARTE

Bilbarr 16. 94 464 04 52

CIANOPLAN

Pierzia herriaren kale 6. 94 464 05 72

ULI ARTE PERSIANAS

Andres Corina 18. 94 403 05 60

LA REPRO

Euskal Herria 10. 94 464 13 95

KALKO

Anguraren atzerakada 48. 94 464 29 83

KISER

Kale Nagusia 16. 94 464 13 37

AMETS

Taldea 13. 94 464 10 31

RÓTULOS ARRILUCE

Arriluce kale 2/9. 94 464 09 83

DESKONTU GEHIGARRIA

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA GETXOKO SALTOKIEI

94 415 22 52

gehia@getxo.net

GETXOKO UDALAKO EUSKARA ZERBITZUA

94 466 00 10/11

euskara.zerbitzua@getxo.net

www.getxo.net

Stephanie Diani

Argazki Jaialdia / Festival de Fotografía

GETXOPHOTO 2011

ZAHARREI GORAZARRE

ELOGIO DE LA VEJEZ

MICHAEL ACKERMAN
LUIS COBELO
MAJA DANIELS
RICKY DAVILA
KAYLYNN DEVENNEY
STEPHANIE DIANI
PATRICK DUNCAN
JOSEP ECHABURU
ANA GALAN
SACHA GOLDBERGER
PETER GRANSER
SANDER MARSMAN
VICENTE PAREDES
NELLY RODRIGUEZ
WALTER SCHELS
ANNET VAN DER VOORT
ANDREW ZUCKERMAN

IRAILA / SEPTIEMBRE 1-30

WWW.GETXOPHOTO.COM

antolatzailea / organiza

BEGIHANDI

babesleak / patrocina

Getxo.
UDALA • AYUNTAMIENTO

**BFA
DFB**
Babesleak Alkandio
Babesleak Alkandio
Babesleak Alkandio
Babesleak Alkandio
Babesleak Alkandio

**FORO JUAN VAN DER
WOUDE**
FORO JUAN VAN DER
WOUDE
FORO JUAN VAN DER
WOUDE
FORO JUAN VAN DER
WOUDE

**D Estudios
Duro**

bbk

**GET
XO
PHOTO**